ASTELEHENEKO
# Goienkaria

2010eko martxoaren 29a > Astelehena > VI. urtea > 271. zenbakia > 1,10 euro

Goiena 10 URTE Komunikazio Zerbitzuak www.goiena.net TOKIKOM

"Asma kontrolatuta egonez gero, krisi edo okertze gutxiago izaten dira"

**Izaskun Arriaran**

Erizaina > 06



**G2a** Musika tresna tradizionalak biluzten > 25

**ESKORIATZA** Aldundiarekin negoziaketak eten ditu Eskoriatzako Udalak > 09

**ARRASATE** Sare sozialen gaineko ikerketa egin du Txatxilipurdi elkarteak > 12

**OÑATI** Garbiketa lanak egiteko igerilekua itxita apirilaren 5era arte > 14

**ERLIJIOA** > ARANTZAZU

## Munilla gotzainaren lehen igoera

Bakearen martxan, Jainkoaren hitza eta elizaren batasuna aipatu ditu > 04

**GIZARTEA** > ELKARTASUNA

## Oztopo gehiago 'Oporrak Bakean' programarentzat

Krisiarekin nahikoa ez, eta aurten beste oztopo bati aurre egin beharko diote *Oporrak Bakean* programaren bultzatzaileek: Europako Batasuneko araudi berria. *Schengen* eremuan sartu nahi duena banakako bisa aurkeztera derrigortuta izango da, eta Saharako umeak taldeko pasaportearekin etortzen dira. > 03



**HEGAZTIAK** Animalia tradizionalak zein exotikoak zeuden ikusgai Bergarako Seminarioko patioan, Erramu-zapatuan. JULIO CALLEJA

**OSPAKIZUNAK** > AZOKA BERGARAN

# Erramu-zapatuko azoka gero eta indartsuago

**EXOTIKOAK** Bergarako azoka tradizionalari ukitu exotikoa eman diote zenbait animalia eta produktuk

**JENDETSUA OSO** Azokaz gainera, herri bazkaria eta bertsolari jaialdia ere arrakastatsuak izan dira > 10

**PROTESTA** > MENDI MARTXA

## AHTren lanak Aramaion

Mendi ibilaldia egin dute, AHTren eragina ikusteko > 11

**EKONOMIA** > BALANTZEA

## Euskadiko Kutxa aurre egiten

2009a ondo pasa duela dio Euskadiko Kutxak > 04

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Elkarrizketa** > 06
**Iritzia** > 08
**Herriak** > 09-16
**Kirola** > 17-23
**Kultura** > 25-27
**Sailkatuak** > 28
**Telebista-Irratia** > 29
**Berri-zaharrak** > 30-31
**Azkena** > 32

**KIROLAK** > MENDI BIZIKLETA

## Esteban onena, Aramaion

Ismael Esteban kantabriarrak irabazi du bigarrengoz Aramaioko mendi bizikleta proba. Euskadiko txapelketarako lehen proba puntuagarria da. 134 txirrindularik hartu zuten irteera Arriola auzotik. > 17



Ismael Esteban. MIREIA BIKUÑA

Goiena kluba



Iritsi dira apirileko opariak! Badago zuretako?

Zoaz 26. orrialdera

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

**LORENZO M. JOOSTEN**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO**
**(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK

**LABORRA ISABEL**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA

**IRIGOIEN VICTOR**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6 behea / 620 12 48 46 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**
**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

**LABORATEGI HOMEOPATIKOA**
**(JABIER BARRENETXEA FARMAZIA)**
Oñati / Kale zaharra 1 / 943 78 32 14

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

**INSTITUTO OPTICO**
Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

## ORTOPEDIA

**ORTO LAGUN**
Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA**
**(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

**AREDHANA YOGA ETA GESTALT**
**PSIKOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 23 57 53

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.



Joan den urtean Bergarara, Antzuolara eta Elgetara etorri ziren ume sahararrak, Bubisher elkarteak eta Bergarako Udalak egin zieten ongietorrian. GOIENKARIA

**ELKARTASUNA** > SAHARA

# Oztopoen gainetik, gertu dute 'Oporrak bakean' kanpaina

**IZENEMATEA** Errefuxiatu kanpamenduetan dauden umeak ekarri nahi dituzten familiek apirilaren 19an eman ahal izango dute izena

**PAPEREKIN ARAZOA** Orain arte talde-pasaportearekin etorri dira umeak; Europako Batasunak araudia aldatu nahi du, eta banakako pasaportea eskatu

**DIRULAGUNTZAK** Harrera-familietan krisiak eraginik ez duela izan behar uste dute elkarteek; administrazioen dirulaguntzekin ez dira horren baikorrak

**MIRIAN BITERI**> BERGARA

Aste Santuko oporren ostean hasiko da *Oporrak bakean* izeneko programa. Nubi elkarteko Agurne Juldainek jakinarazi digu Euskal Herrian berez kanpaina apirilaren 12an hasten baldin bada ere, Debagoienean astebete geroago emango diotela hasiera; izan ere, apirilaren 12tik 16ra bitartean, Herri Sahararraren Giza Eskubideen Aldeko Astea antolatu dute. Maiatzaren 20ra arte iraungo du.

Programa horren bidez, 7 eta 12 urte bitarteko haur sahararrak errefuxiatu kanpamentuetatik irteten dira bi hilabetez; bailarako familien etxeetan ostatu hartzeaz gain, hemen dauden bitartean osasun azterketak egiten dizkiete eta kanpamenduetan duten elikadura faltak eragindako arazoei aurre egiten zaie.

Juldainek azaldu digu arazoak egon badaitezke ere, kanpaina normal ari direla bultzatzen Sahararen alde lan egiten duten elkarteak. Horren harira, gogorarazi du uztailean ume bat ekarri nahi dutenek dagokien elkartearekin (Nubi, Iesbaa edo Bubisher) edo udaletako gizarte zerbitzuarekin jarri behar dutela harremanetan.

**PASAPORTEAREKIN ARAZOAK**

Familiak batzen normal jarraitzen duten arren, Juldainek azaldu du aurten umeak ekartzeko arazoak egon daitezkeela. Izan ere, Europako Batasunak araudi berria jarri nahi du indarrean; horren bidez, edozein pertsona, Europako Batasuneko *Schengen* eremuan (Euskal Herria barnean dago) sartu nahi duena, banakako bisa aurkeztera derrigortuta egongo da. Nubiko kidearen esanetan: "Saharako umeek ez dute pasaporterik eta talde-pasaportearekin etortzen dira. Hori horrela ezin daitekeela izan diote eta apirilaren 5ean araudi berria indarrean jarri nahi dutela esaten dute". Hori horrela izanez gero, Aljeriak milaka pasaporte egin beharko lituzke, kanpamenduetako umeak oporretan joan daitezen. Juldainen arabera: "Kanpo Gaietarako eta Kooperaziorako ministro Miguel Angel Moratinosek dio Aljeriak esfortzua egin behar duela, baina hori ez da bideragarria; gauza bat da esfortzua egitea hiru pasaporte egiteko eta beste bat da milaka egitea. Ez dugu uste martxan jarriko denik".

BESTE EKIMEN BAT

### Ismael Serranok kontzertua eskainiko du Saharako giza eskubideen aldeko astean

Apirilaren 12tik 16ra bitartean, Iesbaa eta Nubi elkarteek Saharako herriaren giza eskubideen aldeko astea egingo dute lehen aldiz. Apirilaren 12an, Aretxabaletako Arkupen, Mundubatek eskainita, *Un grito desde el Sahara* dokumentala ikusi ahalko da, 19:00etan. Hurrengo egunean, Arrasateko Biteri ikastetxe nagusian, Mendebaldeko Sahararen egoeraren gaineko hitzaldia egingo du Afapresa elkarteak, 18:30ean. Apirilaren 14an, berriz, Oñatiko kultura etxera iritsiko da *Un grito desde el Sahara* dokumentala. Apirilaren 15ean, Eskoriatzan, afari-tertulia egingo dute, 21:00etan, Elizoste elkartean. Azkenik, aste horri amaiera borobila emateko, Ismael Serrano abeslariaren kontzertua dago apirilaren 16an Arrasateko Amaia Udal Antzokian, 20:30ean.

**FAMILIA BERRIAK**

Bestalde, krisi ekonomikoaren eraginez, Nubiko kideak ez du uste familien aldetik arazorik egongo denik: "Arrasaten, adibidez, hiru ume berri ekartzeko asmoa dugu. Familia batek, gainera, bi haur nahi ditu izan. Hortaz, familien aldetik ez dugu ikusten krisiak eragingo duenik".

Joan den urtean, 15 ume izan ziren Debagoienean. Nubiren eskutik, sei neska-mutiko etorri ziren Arrasatera. Iesbaa elkarteak, berriz, Aretxabaletara hiru eta Eskoriatzara bakarra ekarri zituen. Bergara, Antzuola eta Elgetan bost ume izan ziren, Bubisherrek ekarrita.

Familien aldetik ez, baina administrazioen jarrerarekin "beldurra" dutela dio: "Horiek dira haurren bidaia ordaintzen dutenak. Ez dakigu zer punturaino eragingo duen krisiak; oraingoz, ez dakigu ezer".

**ERLIJIOA** > BAKEAREN ALDEKO ARANTZAZUKO IGOERA

# Jainkoaren hitza ernetzeko aholkuak eman ditu Munillak Arantzazuko igoeran

Axolagabekeriak, iraunkortasun ezak eta bizitza bikoitzak Jainkoaren hitza gizakiarengan ernetzen eragozten dutela zabaldu du Jose Ignacio Munilla Gipuzkoako gotzainak




09:30ean puntuan hasi zuten Arantzazuko igoera zapatuan, aitaren eginda. OIHANA ELORTZA

**OIHANA ELORTZA** > OÑATI

*Hitzarenak eta hitzekoak* zioen pankartaren atzean ia 6.000 lagun joan ziren oinez Oñatitik Arantzazura bakearen alde zapatu goizean Donostiako elizbarrutiak antolatutako igoeran.

09:30ean hasi zuten ibilaldia. Bizpahiru minutu lehenago jaitsi zen Jose Ignacio Munilla Gipuzkoako gotzaina Arantzazutik, Joxe Mari Arregi frantziskotarren probintzialarekin. Ordurako pankarta eramaten zuten herritarrak Soraluze jatetxearen parean zeuden eta agurtu egin zituen Munillak. Argazkiak ateratzeko denbora utzi, aitaren egin eta igoera hasi zuten. 12:00etan hartu zuen Munillak hitza Arantzazun eta Jainkoaren hitza izan zuen hizpide. Hitz hori gizakiarengan ernetzen galarazten dituen hiru eragozpenez mintzatu zen, ereilearen parabola eredu hartuta. 12:30ean jendea autobusetara joateko kanpaiak jo zituzten eta 20 minututara 44 autobusak Arantzazu utzia zuten.

MARTXAN PARTE HARTU DUTEN HERRITARRAK



**Zelestino Murgia**
Lasarte-Oriatik

"Autobusean etorri gara, beste urte batzuetan moduan. Batzuk ibiltzearren, kirola egitearren, etortzen dira, baina ni bakearen alde nator, ea denon artean zerbait egiten dugun".



**Simona Aulestiarte**
Donostiatik

"Donostiako parrokiako autobusean etorri gara. Urtero etortzen gara bakearen alde, beharra dagoeta. Lastima da gazte gutxi etortzen dela, ez dakite zer galtzen duten".



**Mª Lourdes Azurmendi**
Zegamatik

"Urtero etortzen gara eta aurten ere autobusez etorri gara, familian; amona ere bai. Gotzainaren mezua entzungo dugu Arantzazun eta buelta berriz etxera".



**Konsuelo Sudupe**
Azkoititik

"Munilla gotzainak esaten duenari adi egongo gara. Orain arte gauza txarrak entzun ditugu berari buruz, baina ez dut uste horrenbestekoa izango denik. Ea ze inpresiorekin bueltatzen garen".

**EKONOMIA** > EUSKADIKO KUTXA

## 2009a ondo pasa duela esan du Euskadiko Kutxak

2010ean bide beretik jarraitu gura dutela esan dute Euskadiko Kutxako ordezkariek

**TXOMIN MADINA** > ARRASATE

Julio Gallastegi Euskadiko Kutxako zuzendari nagusiak eta Txomin Garcia presidenteak aurkeztu dituzte entitatearen 2009ko ekitaldiko emaitzak. Zergen osteko emaitzak 56 milioi euro eta erdikoak izan dira, iaz baino %43 gutxiago. Entitateko arduradunak, dena den, gustura daude iazko urteak emandakoarekin. Euren esanetan, "urte gogorra izan arren Euskadiko Kutxak egoerari aurre egiten" jakin du. Horren adibide jarri dituzte berankortasun edo morositate tasa baxua eta kaudimen ratio altua. Berankortasuna, adibidez, 2,90ekoa izan zen Euskadiko Kutxan eta beste kutxetan aldiz, 4,90ekoa. Kaudimen ratioa, berriz, %11,5ekoa izan zen, sektoreko altuenen artean kokatuz.

Negozio errepikarian bilakaera konparatibo ona izan dutela adierazi dute entitatetik, bai aktibo eta pasibo hazkundeetan eta baita interesen marjinetan ere, azken puntu honetan, %14,6 hobetuz. Azpimarratu dute era berean, estatuko entitateen artean, bigarren urtez lehenengo postua lortu dutela zerbitzuaren kalitateari dagokionez.

Bulego kopuruei dagokienez, 394 bulego zituen Euskadiko Kutxak iazko urte bukaeran, 2008an baino zazpi gutxiago. Aurten ere baliteke bulego kopuruak zertxobait behera egitea. Arduradunek, baina, ez dela larritzeko kontua esan dute, egoerara egokitzeko pausua baizik.

**2010A URTE GOGORRAGOA**

2010erako aurreikuspenei buruz, helburua oraingo bidetik jarraitzea dela esan dute ordezkariek.

DATUA

**56,5**
MILIOI EURO

Zergen osteko emaitzak 56 milioi euro eta erdikoak izan dira 2009an, aurreko urtean baino %43 gutxiago.

> AZPIEGITURAK

### AHTren aurkako mendi martxa apirilaren 25ean

AHTk Aramaion eta Arrasaten eragina izango duen ingurunera mendi martxa egingo dute apirilaren 25ean AHT Gelditu! Elkarlanak deituta.

Mendi martxa Arrasateko Markuleteko industrialdetik abiatuko da, 09:30ean eta obra horrek Aramaio eta Arrasateko lurretan duen eragina ikusiko dute. Horrela, Markuleten hasi eta Muru azpira joango dira, handik Suñara, Untzilla errekara eta azkenik, Gesalibarrera. Hiru orduko mendi martxa izango da eta bukaeran herri bazkaria, musika eta jendarteko herri jolasak egingo dituzte Arrasaten. Apirilaren 25ean egingo dute AHTren aurkako mendi martxa hori.

> EUSKARA

### Familia euskaldunetan izena emateko epea, zabalik

*Egonaldiak familia euskaldunetan* ekimena antolatu du aurten ere Habek, eta izena emateko epea dagoeneko zabalik dago. Helburu nagusia da, euskara, inguru euskaldun batean, praktikatu eta bertako bizimodu eta kultura gertutik ezagutu nahi duten pertsona helduei familia euskaldun batean hilabeteko edo bi hilabeteko egonaldiak eskaintzea. Familiak bete behar dituzten baldintzetako bi dira: biztanleriaren %70etik gora euskaldunak diren udalerrian edo auzoan bizitzea eta gutxienez hiru kide izatea. Interesa duten familiek apirilaren 23a arteko epea dute izena emateko telefono zenbaki honetan: 943 47 44 47 (Olga).

> EZBEHARRA

### Sua piztu zen Aretxabaletako jatetxe baten

Aretxabaletako Basabe industrialdean dagoen izen bereko jatetxean sua piztu zen egubakoitz gauean. Jatetxeko kekanpaiak hartu zuen sua, eta teilaturaino heltzen den hodia erre zen ondorioz.

Zubillagako suhiltzaileek 22:30ak aldera jaso zuten Basabe industrialdean kea zegoenaren abisua eta hiru kamioi eta Eibarko beste bat joan ziren. Antza, jatetxeko sukaldeko ke-kanpaian sortu zen sua, arrazoi jakinik gabe. Ke eta aireztatze-hodiak 10 bat metro luze ditu teilaturaino eta barruan zegoen koipeak ere su hartu zuenez, teilatuko estraktorea ere erre egin zen. Jatetxea itxita zegoen ezbeharra gertatu zenean.



Jose Riviere joan den eguaztenean, Arrasateko Abaroa zentroan. JULEN IRIONDO

**Jose Riviere** > Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarteko presidentea

# "Aisialdi ekimenak antolatzeaz gain, bestelako arloetan ere egin behar dugu lan elkartean"

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

**Jose Riviere arrasatearra izendatu dute Gipuzkoako Erretiratuen eta Pentsiodunen Elkarteko presidente. Joan den martitzenean hartu zuen kargua, elkarteak Donostian egindako batzar orokorrean. Datozen lau urteotako lan ildoen berri eman digu: Dependentziaren Legea, eguneko zentroak eta nagusiendako egoitzak, besteak beste.**

**Nolatan animatu zinen Gipuzkoako Erretiratuen eta Pentsiodunen Elkarteko presidente kargura hautagaitza aurkeztera?**

Aurretik idazkariordea nintzen. Kontua da elkartean hainbat dimisio egon zirela, presidentearena tartean, eta zuzendaritza batzordea birmoldatu egin behar izan genuela. Urteko batzar orokorra egin bitartean, ordura arte presidenteordea zena presidente izendatu genuen.

Hautagaitza aurkezteko epea zabaldu zenean, zain egon ginen, bateren bat aurkeztuko zelakoan. Horretarako epea martxoaren 13an amaitzen zen eta martxoaren 12an, inor ez zela agertu behar ikusita, Arrasateko Abaroa zentroaren bidez hautagaitza aurkeztu nuen, posta elektroniko eta fax bidez. Abaroaren eta Degoieneko zentro guztien babesa dut.

**Martitzenean egindako batzarrean izendatu zintuzten presidente, 200 lagunen aurrean; tartean, Markel Olano diputatu nagusiaren aurrean. Zelan bizi izan zenuen momentua?**

Jendaurrean hitz egitera ohituta banago ere, urduri nengoen. Hautagai bakarra izanik, lehenik eta behin esan nuen pena ematen zidala beste hautagairik egon ez izana, horrek esan nahi duelako jendea ez dagoelako gertu gainerakoendako lanik egiteko.

Bestalde, legeak dio hautagai bakarra nintzenez automatikoki izendatua izan behar nuela. Nik, dena dela, jakinarazi nien batzarraren esku uzten nuela horren onarpena. Txalotu egin ninduten. Prestatutako programa ere irakurri nien; besteak beste, elkartearen helburuen berri eman nuen; tartean, aisialdiarekin lotutako ekimenak antolatzeaz gain, bestelako arloetan ere lan egin behar dugula aipatu nien.

**Horren harira, zeintzuk izango dira lan ildo esanguratsuenak?**

Legeek aurreikusten dituzten nagusien eskubideak aldarrikatuko ditugu. Legeak paperak dira eta horiek gara daitezen partida ekonomikoak behar dira; horiek egon ezean, ez dute ezertarako balio. Dependentziaren Legearekin horixe ari da gertatzen.

Bestalde, eguneko zentroez ere jardungo dugu. Herri askotan dagoeneko badauden arren, beste batzuetan urteak daramatzate zerbitzu hori eskatzen. Esku artean izango dugun beste gai bat da etxebizitzen egokitzapena. Nagusiek euren etxeetan bizi izaten jarrai dezatela da helburua. Horren harira, argi izan behar dugu egoitza azken aukera dela, nagusia bere kabuz baliatzen ez denerako. Nagusi asko daude etxean 6 urte gehiago egon daitezkeenak, dutxak egokituta, igogailua izanda eta pasilloan barandak jarrita. Luzarora, egoitza baino merkeagoa da hori.

Egoitzekin ere lan egingo dugu. Hainbat tokitan, egoitzara joaten diren lagunek ez dute ordaindu behar dagokien diru kopurua. Zati bat erakundeek ordaintzen dute eta bestea, partikularrek.

**Horrekin hasi aurretik, baina, zuzendaritza batzordea osatu beharko duzu, ezta?**

Hala da. Hori da lehenengo zeregina. Guztira, 12 kidez osatuta dago eta oraindik ez daude denak aukeratuta. Hortik aurrera, batzarrean irakurri nuen programaren harira, elkarlanean hasi beharko dugu lan egiten. Horrek urtetako lana eskatzen du.

**Gipuzkoako elkarteko presidenteaz gain, Arrasateko Abaroa zentroko eta Debagoieneko batzordeko presidentea ere bazara. Horrekin guztiorrekin ahal izango duzu?**

Bai, baina lantalde onak izan behar dituzu atzetik. Denbora libre luzerik ez dut edukiko hemendik aurrera, baina larregi ere ez dut behar.

> **"Inor ez zela agertu behar ikusita, Abaroaren bidez hautagaitza aurkeztu nuen"**

> **"Zuzendaritza batzordea 12 kidez osatuta dago eta oraindik ez daude denak aukeratuta"**

> **"Denbora libre luzerik ez dut edukiko hemendik aurrera, baina larregi ere ez dut behar"**

---

**etxeko leihotik**



**Usoa Agirre** > uagirre@goiena.com

## Telebistaren iraultza ekarriko du Internetek

Nola ikusten duzu telebista? "Sofan eserita", erantzungo du norbaitek. Baina ez naiz horretaz ari. Gaur egun telebista modu askotara ikus daiteke: LTDtik, kablez, satelite bidez, Internetez... Azken honetaz berba egin nahiko nuke.

Azken urteotan ezagutu dugun telebista pixkanaka itzaltzen doa. Oraindik ere garrantzi handia dute gureko telebista jeneralistek, baina pixkanaka horiek ere indarra galtzen doaz. Kate horietan nahi duguna bilatu ez eta Internetera jotzen dugu askok eta askok, eta hor ikus dezakegu nahi duguna nahi dugunean. LTDarekin telebista ikusteko modua irauli behar omen zen. Oraingoz, ez da horrelakorik gertatu; kate gehiago bai, baina lehengo kaka baino usain okerragokoak gehienak.

Benetako iraultza Interneten gertatzen ari da. Sortu dira ehunka webgune eta programa Internet bidez telebista ikusi ahal izateko. Ez da, gainera, ordenagailua piztu eta zer dagoen begira gelditzea; zuk bilatzen duzu momentuan ikusi nahi duzuna. Ez da, ordea, ikusleendako bakarrik, telebista egin nahi duenarendako ere medio asko eta merkeak –doakoak asko– eskaintzen ditu Internetek. Telebista jeneralista horietako asko konturatu dira eta hasi dira Interneten ere murgiltzen. Baina oraindik asko dago ikasteko. Ea legeek ez dizkioten hegoak mozten sareko jardunari.

> **"Telebista egiteko medio asko eskaintzen ditu gaur egun Internetek"**

**> Livestream bidez esperimentutxo bat egin genuen joan den egueneaan GOITBn. Gorka Julio *Teketen*-ek hitzaldia egin zuen platoan eta hitzaldi hori Internetez eman genuen, jendearen parte-hartzearekin. Hitzaldiak egiteko modu berria izan daiteke.**

**> Mundumira aurkeztu zuten joan den astean. Antzuolan izango da aurten, maiatzean. Aurreko urteetan baino aurrekontu txikiagoarekin, baina eskaintza zabala da aurten ere; ea antzuolarrok ondo erantzuten diogun erronkari.**

---

**HEZKUNTZA** > OÑATI

## 14 batzar zientifiko lege soziologiako institutuan

Nagusien, etorkinen, etxeko langileen eskubideak eta beste aztergai, gaurtik

**ASTELEHENEKO GOIENKARIA** > OÑATI

Gaur egingo dute Oñatiko Lege Soziologiako Institutuan lehen batzar zientifikoa. *Ancianidad, derechos humanos y calidad de vida: nuevos desafíos para la autonomía, la igualdad y la no discriminación en la vejez*, horixe da gaurko saioaren izenburua eta helburua da gaur egungo gizartean nagusi diren baloreen ondorioz, adinekoek pairatzen duten bazterketa aztertzea.

Gaurko batzar horrekin abiaraziko dute guztira, 14 batzar zientifiko izango dituen mintegia.

**HIRIETAKO SEGURTASUN FALTA**

Nazioarteko garrantzia duten gaiak landuko dituzte: giza eskubideak, etxeko langileen egoera, kriminologia Europan, klima-aldaketa, hirietako segurtasun-falta eta beste.

Debagoieneko ospitaleko etxeko ospitalizazio zerbitzuko erizain Izaskun Arriaranek asmaren gaineko hitzaldia egin zuen joan den eguaztenean Arrasateko Kulturaten. Txagorritxu ospitaleko erizain Aitziber Gutierrezekin batera, asma kontrolatzearen garrantzia azpimarratu zuten. Horren harira, gogorarazi nahi izan zuen gaixotasun kronikoa dela.

**Izaskun Arriaran** > Debagoieneko ospitaleko etxeko ospitalizazioko erizaina

# "Asma kontrolatuta egonez gero, krisi edo okertze gutxiago izaten dira"

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

**Herritarren interesa piztu zuen Debagoieneko etxeko ospitalizazio zerbitzuko erizain Izaskun Arriaran aramaioarrak joan den eguaztenean Arrasateko Kulturaten egin zuen *Asma kontrolatzearen garrantzia* izeneko hitzaldiak. Hori dela eta, beste hitzaldi bat antolatzea pentsatu dute.**



Izaskun Arriaran aramaioarra, inhalagailua zelan erabili behar den azaltzen. MIRIAN BITERI

**Pozik egongo zarete hitzaldiak piztu duen interesa dela-eta?**

Bai, hala da. Oso harrera ona izan zuen eta Kulturatera joandako jendeak beste hitzaldi bat eskatu zuen. Guk, guztia prest dugunez, ez dugu inongo arazorik beste hitzordu bat finkatzeko, baldin eta taldetxo bat elkartzen bada. Hortaz, asmaren gaineko beste hitzaldi baterako interesa duenak nirekin jarri behar du harremanetan, honako telefono zenbakian: 634 45 28 86.

**Erizaintzaren ikuspuntutik planteatu zenuten hitzaldia. Zein zen asmoa?**

Helburu nagusia zen asma gaixotasuna ezagutaraztea eta gaixotasun horren kontrola izatearen garrantziaz ohartaraztea. Gure asmoa ez da horren gaineko faktoreak aztertzea, baizik eta gaixotasuna ezagutu eta tratamendua modu egokian hartzea.

**Hitzaldiaren izenburua *Asma kontrolatzearen garrantzia* da. Zergatik da horren garrantzitsua kontrolatzea?**

Ikusi dugulako asmatikoen %50 inguruk ez dutela tratamendua jarraitzen. Lehenik eta behin, argi eta garbi izan behar dugu gaixotasun kronikoa dela, hipertentsioaren edo diabetesaren moduan, eta, hortaz, ez dela sendatzen. Gainera, inflamazioa eragiten duen gaixotasuna ere bada. Faktore asko daude horren atzean; tartean, genetika. Asmak bronkioen itxiera eragiten du.

Frogatuta dago gaitz hori kontrolatuta egonez gero, krisi edo okertze gutxiago izaten direla. Helburua da asmatikoei azaltzea zer egin behar dute krisi batean ez jausteko; horrek eragiten duelako ospitalera bisita asko eta bizi kalitatearen gutxitzea.

**Zeintzuk dira krisi horien sintomak?**

Ohikoenak izaten dira arnasestua edo disnea, eztula eta arnasa hartzerakoan sortzen ditugun zaratak; hau da, aireak bronkioitxietatik pasatzerakoan ateratzen duen hotsa. Askotan, gainera, mina senti dezake gaixoak.

**Adin tarte jakinen bati eragiten dio bereziki?**

Haurretan, portzentajea nahiko handia da eta bereziki mutiletan du eragina. Nerabeen artean, berriz, neskei eragiten die gehiago. Helduen artean, 18 eta 45 urte bitartean ere portzentajea handia da. Ez dakit zehazki ehuneko bat esaten, baina tasa %10 inguruan dago.

**Nola kontrolatu behar dugu?**

Garrantzitsuena da, lehen esan dudan moduan, jarri diguten tratamendua ez uztea. Sintomarik ez izan arren, gogorarazi behar dugu inflamazioa eragiten duen gaixotasuna dela eta krisi puntualak izan ditzakegula. Gertatzen dena da krisi artean gaixoak ondo sentitzen direla eta, hortaz, tratamendua uztea erabakitzen dutela. Hori da, hain justu, egin behar ez dena. Krisi horrek hobera egin dezake ezer egin barik edo tratamendu bat jarraituz. Egokiena da tratamendu hori denboran mantentzea, krisi edo bronkioen itxiera horiek izan ez ditzagun.

Bestalde, oso garrantzitsua da kirola egitea. Oker gaude uste badugu bronkioetako arazoak dituztenek edo asmatikoek kirolik ezin dutela egin. Gaixotasuna kontrolatuta dagoen momentutik, komenigarria da kirola egitea eta baita dieta osasungarria jarraitzea ere. Hori da batez ere egin dezakeguna.

**Edozein kirol mota praktika dezakegu?**

Igeriketa da gehien gomendatzen dena, toki hezeetan egiten delako. Azkenean, kirola egiten dugunean arnas bideak sikatu eta hoztu egin daitezke eta horrek eragin dezake krisi bat errazago izatea. Hortaz, igerilekua hezea denez, hori da egokiena. Dena dela, asmatikoak diren kirolari ezagun asko ditugu askotariko jardueretan: txirrindularitzan eta lasterketetan, besteak beste.

**Ingurumenak ere eragina izango du horretan, ezta?**

Hala da. Faktore asko daude eta zehatz-mehatz ezin daiteke jakin zerk eragiten duen bronkioen handitzea. Faktore horien artean, klima dago. Frogatuta dago toki sikuetan gaixoen tasa txikiagoa dela; hemen handiagoa da. Elikaduren koloratzaileek, kutsadurak eta alergia sortzen duten beste mila kontuk ere ez dute askorik laguntzen.

**Zelakoak dira tratamenduak?**

Bereziki, inhalagailuak dira gehien ematen direnak. Horrekin tratamendua zuzenean doa arnas bidera eta dosi txikiagoak hartu behar dira. Tratamendu eraginkorrena bada ere, konturatu gara jendeak ez dakiela inhalagailuak modu egokian erabiltzen. Gure hitzaldian, aparailu horiek zelan erabili behar diren erakutsi genien Kulturaten izandakoei.

SENDAEZINA

**"Gaixotasun kronikoa da, hipertentsioaren edo diabetesaren moduan; hortaz, ez da sendatzen"**

KIROLA

**"Oker gaude uste badugu bronkioetako arazoak dituztenek edo asmatikoek kirolik ezin dutela egin"**

INHALAGAILUAK

**"Inhalagailuak eraginkorrenak badira ere, jendeak ez daki horiek modu egokian erabiltzen"**




**Oihane Isasi,** Goiena Telebistako errealizatzailea, Azkaraten zubisaltoa egin ondoren.

# Egin dugu salto

**Orain digitalera salto egin dugu:**

**> BERGARAN ETA OÑATIN**

Goiena Telebista dagoeneko digitalean:
BERGARAN, OÑATIN, ARETXABALETAN, ESKORIATZAN,
ARRASATEN ETA LEINTZ GATZAGAN.

Laster digitalean:
ANTZUOLAN, ARAMAION ETA ELGETAN.

Goitb
Goiena Telebista
*Ikustekoa!*

## kale inkesta

# Ze iruditzen zaizu Arregi viatoristari ezarritako zigorra? Ze pentsatzen zaizu Elizaren jarrera?



**Begoña Erostarbe**
Langilea
Arrasate

Betidanik egon da pederastia, baina ezkutuan mantendu da. Zigorrik handiena jarriko nieke; zakila moztu, adibidez. Kastrazio kimikoarekin ez nago ados, lehengora buelta daitezkeelako pastillak kendu gero.



**Yolanda Nieves**
Langabea
Arrasate

Zigor txikia ezarri diotela uste dut, kondena handiagoa izan beharko luke. Legeak gogorragoa izan beharko luke. Elizak ezkutatzea ere ez zait ondo iruditzen, lehenago salatuz gero ume gutxiagok jasango lukete-eta.



**Joseba Uriarte**
Erretiratua
Arrasate

Ondo iruditzen zait jaso duen zigorra. Akusazio gehiago jasoz gero, kondena handiagoa beharko luke, hala ere. Horrelako egoerak beti egon dira eta orain hasi dira jakinarazten, argitara ematen.



**Rakel Rodriguez**
Langilea
Arrasate

Zigor txikia jaso duela iruditzen zait, hutsa ez esatearren. Uste dut betiko kartzela zigorra ezarri beharko lioketela. Eliza barruan ere saltsa handia dago, eta elizgizon askok egon beharko luke-te kartzelan.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ARRASATE
**> Autobusetako markesinak apurtuta oraindik**
Otalorako Ferixalekuaren ondoan eta Eroski hipermerkatuaren parean dauden autobusen markesinetako kristalak oraindik apurtuta daudela kexatzeko deitu du herritar batek erredakziora. "Ziklogenesiak apurtu zituen, baina honez gero bada hilabete baino gehiago haizete hori pasa zela eta orduko txikizio horiek konpondu barik jarraitzen dute oraindik eta kristal berriak ahal bezain azkarren aldatzea eskatu nahi diot dagokionari", esan du herritarrak.

ANTZUOLA
**> Antzuolara nondik joan dioten kartelak falta dira**
Antzuolar bat haserre agertu da Antzuolara nondik joan dioten kartelak ez daudelako errepide sare nagusian. "AP1 autobidean, adibidez, Bergara parean, Zumarraga edo Beasain agertzen dira, baina ez Antzuola. Ez dago kartelik gure herria iragartzen dutenik".

BERGARA
**> Errepidean zuloak Antzuolatik Bergara bitartean**
Antzuolatik Bergarara bitartean, AP1 autobideko sarrerako biribilgunera heldu baino lehen hain justu, zuloak daude errepidean eta horiek noiz konpondu behar dituzten galdetu du bergarar batek. "Egunero pasatzen naiz hortik lanera joateko, eta kokoteraino nago zulo horietaz".

## usteak uste

**Oihana Elorza**

# Zein da zure zaletasuna?

Arregi viatoristari ez diote, antza, sarritan egin galdera hori. Edo bai, eta ohikoak diren erantzunak eman ditu: irakurtzea, bidaiatzea, kirola egitea ... edo egia esan duenean "oso ondo" erantzun eta horrela jarraitzeko esan diote.

Berak ez ei zuen inoiz pentsatu umeei egin diena zerbait txarra zenik, zaletasun moduan ulertzen zuen berak, besterik ez. Besterik ez.

Azala behar du gero pertsonak hori esateko. Bizkarra babestuta duela dakielako izango da, agian. Eta azala behar da gero, berak eta bere antzerako beste batzuk egin dutena ezkutatzeko eta modu horretan babesteko. Barkamenaren izenean, koadrilako lagunen leialtasunaren izenean edo dena delakoaren izenean.

Egia esan, berdin dio zein zaletasun duzun, 817 egunetako espetxealdiaren truke bada.

## zorroztailea



**Joxemari Muxika**

# Politikariak kapitalisten menpe

"Mobilizazio kanpaina martxan jarri dugunetik botere metaketa bat dagoela ikusi dugu, ekonomikoa, politikoa eta mediatikoa. Haien helburua isilaraztea da, eta lortzen ez dutenean, manipulatzea".

**Arriskuan eredu sozial osoa dago; hori da benetako krisia**
Berria > 2010-03-29


«Arriskuan eredu sozial osoa dago; hori da benetako krisia»

Kapitalistentzat, gizartearen ongizatearen aurretik dago erabiltzen duten diruarekin lortutako etekin pertsonala. Azkenaldi honetan langileen kalterako eta kapitalaren aldeko lege berriak eskatzen ari dira. Diruak ematen dien boterearekin nahi dutena lortzea dute helburu: zergetan deklaratzen ez diren neurrigabeko soldatak jaso, langileak kaleratzeko erraztasunak jarri, prekarietatea handitu, eurentzat eta langileentzat pentsiotarako zergak gutxitu, soldatak bere horretan utzi eta lanorduak gehitu… Hau da, aberatsak gehiago gizentzeko bidea jarri eta zor publikoa langileen lepotik ordaindu. Hori omen da euren gisako kapitalista espekulatzaileek eragin duten krisitik ateratzeko bidea.

Agintari politikoak presionatzen ari dira komeni zaizkien legeak onar ditzaten. Agintariak, bere aldetik, kontzientzia arazo handirik gabe joko horretan jausten ari dira. Langileak diren herritarren botoei esker agintea hartu zuten politikoak izanik gehienak, kuriosoa da langileen interesak alde batera uzten dituztela ikustea. Kapitalisten eragina bakarrik ote da edo langileek ba ote zekiten zer programa politikori ematen zieten botoa eta zertarako erabiliko zuten? Boteredunen jokaerak ematen digun ikasgaia hurrengo hauteskundetarako ondo ikasi beharko da.

> **"Boteredunen jokaerak ematen digun ikasgaia hurrengo hauteskundetarako ondo ikasi beharko da"**

Jakina, horrelako eraso baten aurrean haserre ageri dira soldata arruntetatik eta askorentzat eskasak diren pentsioetatik bizi diren langileak eta sindikatuak. Hori adierazten dute eredu ekonomiko eta sozial "berri baten alde" negu honetan "gehiengo sindikalak" bildutako 131.894 pertsonen sinadurak, eta baita zapatuko mobilizazio arrakastatsuek ere.

Eta zer joko daramate hedabideek? Kapitalaren jabetzakoak direnez, eurek kontrolatzen dute ematen duten informazioa. Horretarako jartzen dituzten langile kazetariek euren esanetara jardun behar izaten dute, soldatapeko guztiek bezala.

Nola garatu gizarte ongizatea kapitalaren menpeko agintari politiko eta hedabideak dituen eredu honetan? Gizarte eredua aldatu gabe ezinezkoa dirudi. Hauxe da guztiok aurrean dugun erronka. Asmatuko ote dugu?

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Asteburuko erredakzioaren arduraduna** Ubane Madera **Erredakzioa** Oihana Elortza, Mireia Bikuña, Arritxu Barruso **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

# Herriak

**Arrasate** > 12 **Bergara** > 13 **Oñati** > 14 **Aretxabaleta** > 15 **Eskoriatza** > 15
**Antzuola** > 16 **Aramaio** > 16 **Elgeta** > 16 **Leintz Gatzaga** > 16



**> OÑATI**
Garbiketa egiteko, igerilekua itxita egongo da gaurtik apirilaren 5era **> 14**



**> ESKORIATZA**
Beste lur-jausirik ez dela gertatuko bermatuko dute konponketa lanekin **> 15**



**> ELGETA**
Pare bat aste barru iritsiko da GOITB digitalean herrira **> 15**

**ESKORIATZA** > MESEDEETAKO AMAREN ZAHARREN EGOITZA

# Aldundiarekin negoziaketak eten ditu Udalak eta egoitza eraberrituko dute

**DESADOSTASUNAK**
Udal Gobernuak salatu du Diputazioak asko aldatu duela hasieran adostutako proiektua



Eskoriatzako Mesedeetako Amaren zaharren egoitza. GOIENKARIA

**ARRITXU BARRUSO** > ESKORIATZA

Urtebete eta lau hilabete pasa dira Eskoriatzan zaharren egoitzaren etorkizuna erabakitzeko herri galdeketa egin zenetik. Bada, oraindik ere etorkizuna erabakitzeke dago; baina badirudi azkenean ere egoitza berri bat eraiki beharrean, gaur egungoa eraberritu egingo dutela, herri galdeketaren emaitzak kontrakoa zioen arren. Udal Gobernuaren asmoa da udaparterako egoitza eraberritzeko proiektua onartuta izatea.

**HERRITARREN HITZA**

2008ko azaroan egindako herri galdeketan parte hartutako eskoriatzarrek argi utzi zuten Mesedeetako Amaren zaharren egoitzarekin zer egin nahi zuten;%78,20ak aukera bera bozkatu zuen: zaharren egoitza bota, eraikin berria egin eta egoitza berriaren kudeaketa GSR enpresaren esku uztea; horrez gain, gaur egun dauden 32 tokiez gain beste 24 plaza sortuko ziren zerbitzu psikogeriatrikoetarako. Egoitza berria egiteko aurrekontua bi milioi euro inguru zen eta Aldundiak eta GSR enpresak erdibana ordainduko zuten.

Galdeketaren emaitza loteslea zen; hori horrela, herriaren erabakia osoko bilkuran berretsi zuten eta Eskoriatzako zaharren egoitza kudeatzen duen patronatuak ere gauza bera egin zuen.

**ALDUNDIAREKIN DESADOSTASUNAK**

Egoitzaren etorkizuna erabakita zegoela zirudienean Diputazioarekin desadostasunak hasi ziren. Udal Gobernuak salatu zuen hasierako proiektuan aldaketa handiak egin zituela Foru Aldundiak. "Hasiera batean, sortu behar ziren 24 plaza berriak psikogeriatrikoak izan behar ziren; hau da, alzheimerra eta antzeko gaixotasunak zituzten adineko pertsonendako. Baina, Aldundiarekin bilerak hasi genituenean esan ziguten 24 plaza horiek, azkenean, buruko gaixotasun larria zutenendako izango zirela, eta gainera gehienak gazteak izango zirela. Hori ez zen Diputazioarekin adostu genuena", azaldu du Pedro Lasagabaster alkateak. Horrez gain, finantzazioarekin ere aldaketak planteatu zituen Diputazioak: "Egoitza berria egiteko proiektua Diputazioak eta GSR enpresak finantzatu behar zuten %100ean. Hor ere berehala etorri ziren aldaketak. Aldundiak esan zigun egoitza txukun bat egitea nahi bagenuen Udalak ere dirua ipini beharko zuela".

Aldaketa hauek ezagututa udal gobernuak batzar berezia deitu zuen udalbatza osatzen duten zinegotziekin; bertan bozketa egin ostean, erabaki zuten Diputazioarekin harremanak etetea eta egoitza berria eraiki beharrean, gaur egungoa eraberritzea. Egoiliar kopurua mantendu egingo dute eta kudeaketak patronatuaren ardura izaten jarraituko du. Udala dagoeneko arkitekto talde batekin lanean ari da gaur egungo eraikin nola zaharberritu aztertzeko. Alkateak azaldu du esperientzia askoko arkitektoak direla eta egoitza txukuna eta duina egingo dutela. Asmoa da udarako proiektua onartuta edukitzea; patronatuak ere onartu egin beharko du proiektu hori, berea da-eta azken hitza.

**PATRONATU MUNIZIPALA**

Udalbatzak, bestetik, zaharren egoitza kudeatzen duen patronatua munizipala izatea eskatu du. Gaur egun, patronatua parrokoak, Udal ordezkariek eta zenbait herritarrek osatzen dute. "Jose Aranak Eskoriatzako herriari eman zion egoitza eraikitzeko dirua. Uste dugu herria udalbatzak ordezkatzen duela, beraz, logikoena litzateke udalbatza osatzen duten alderdietako ordezkariek bakarrik osatzea patronatua", azaldu du Lasagabasterrek.

ESANAK

## "Aldundiak zioen plaza berriak buruko gaixotasun larriak zituztenendako izango zirela, eta hori ez zen adostutakoa"

**Pedro Lasagabaster** > Alkatea

DATUA

## 600

**MILA EURO**

Zaharren egoitza eraberritzeko proiektuaren aurrekontua 600.000 euro da; patronatuak erdia ordainduko du eta beste 300.000 euroak Diputazioak jarriko ditu.

GALDEKETAREN EMAITZA

## Eraikin berria eta gestio pribatua

Eskoriatzako zaharren egoitzaren etorkizuna erabakitzeko herri galdeketa egin zen 2008 azaroan. Hiru aukera eman zitzaizkien herritarrei. Lehenengoa zen egungo eraikina, bota barik, berritzea eta egoitzaren kudeaketa Udalaren esku geratzea. Bigarren aukerak ere eraikina berritzea proposatzen zuen, baina kasu honetan kudeaketa GSR enpresaren esku geratuko zen. Hirugarren aukerak, berriz, egungo eraikina bota eta berria egitea planteatzen zuen; kudeaketa GSR enpresaren esku geratuko litzateke eta 24 plaza psikogeriatriko berri sortuko lirateke.

3.475 biztanlek zuten bozka emateko eskubidea eta parte hartzea %19,54koa izan zen. Gehiengoak (%78,20) hirugarren aukeraren alde egin zuten.

**BERGARA** > ERRAMU ZAPATUKO AZOKA

# Ikusi, ukitu... zentzumenak ase, Erramu-zapatuan

Azoka tradizionalek tirakada handia dutela erakutsi zuen Bergarako azokako bisitari andanak



Seminarioko patioko animaliekin gustura ibili ziren bereziki etxeko txikienak; astoak ukitu, antxumeei jaten eman... . JULIO CALLEJA



Uxue Alberdi, Joxe Agirre, Iker Zubeldia, Julio Soto eta Jone Uria, pilotalekuan. J.C.



Andrea goruetan, eta umea begira. J.C.



600 euroko panpinak, salgai. J.C.



Txorimalo lehiaketan saria eskuratu ostean, pozik eta harro. J.C.



Kalean geldialditxoa egin zuten ikusleek trikitilariak entzuteko. J.C.

**UBANE MADERA** > BERGARA

Euritsu eta goibel hasi arren, berehala jendez gainezka lepo zeuden Bergarako kaleak Erramu-zapatuaren azokaren bueltan. Etxean edo baserrietan egindako produktudun saltokiak nonahi, ganadu ikusgarria eta animalia tradizionalekin batera, ikusleen ahoa zabalarazten zuten animalia exotikoak ere izan ziren Bergaran, kanguruak eta zarigueiak, adibidez.

Saltokietan mugimendu nahiko ikusi zen, saltzaileak eta erosleak trukean, gazta edo ogiaren prezioetan beherapenak eginez, ahalik eta gehien saldu nahian.

Bestelako postuen artean, arrakastatsuenetarikoak talo postuak izan ziren. Ikastolaren patioan zein pilotalekuaren parean, ilarak egin eta pazientzia izan behar izan zuten erosleek. "200 bat talo" egingo zituztela aurreikusi zuten postuetako batean. Eta egin ere, denetarikoak: txorizodun taloak bai, baina baita hirugihar edo txokolatedunak ere. Azken batean, bezeroak agintzen du.

**TXORIMALOAK**

Bestalde, kaleko koloreen artean, laranja nabarmentzen zen tarteka Ibargarai kalean. Jardun elkartearen txorimalo lehiaketako partehartzaileak ziren, 21 talde, 200 gazte inguru. Guztiak ere harro, egindako txorimaloarekin. Irudimena bazutela erakutsi zuten landutako txorimalo eta euskararen aldeko mezuetan. Irabazleetako bat honako hauxe: *Euskaraz egin gero, herria bero-bero*. Gazteen artean beste bi talderi ere eman zieten saria: Gasteizko bolalekura irteera, Jardunen eskutik. Nagusiagoen atalean, Gureak taldekoak eta Baserritarrak gailendu ziren. Eta nagusienen artean, Mizpirualde egoitzakoak.

Herri bazkari eta ondorengoen ostean, domeka goizean bukatu zuten Erramu-zapatuko jaia kale-garbitzaileek.

## AZOKAKO BISITARI ETA EROSLEEN ESANAK



**Segundo Zubizarreta**
Eskoriatzako bisitariak

"Eskoriatzatik etorri gara; urtero etortzen gara. Sekulako giroa egoten da. Zerbait erosi eta hamarretakoa ere egin dugu. Izan ere, ikusi bai, baina erosketak ere egiten ditugu. Krisian gaude, baina noizean behin...".



**Aberri Barandalla**
Jeingenekoa baserrikoa (Nafarroa)

"Etxarri-Aranaztik etorri gara, esne behiarekin egindako gaztarekin. Lauzpabost urte daramatzagu etortzen. Bergara ez da plaza txarra saltzeko. Dena den, gehien mugitzen direnak probatzeko ematen ditugun gazta zatiak dira (barre). Hala ere, jendeak ezagutu egiten gaitu, eta zertxobait saltzen dugu".



**Alazne, Jone eta Maite**
Bergarako gazteak

"Aurten animatu gara mahoiz janzten. Azoka guztia ikusi dugu. Buelta bat ematen dugu, eta gero gauean parranda; erromeria ere egoten da. Urtero irteten gara, txikitan txorimaloa egiten genuen, baina dagoeneko ez gara animatzen. Bergarako gazteendako herriko jai inportantea da hau".



**Luisa Sanper**
Orioko bisitaria

"Oriotik etorri gara. Jakin izan genuen azoka zegoela eta atentzioa eman zigun. Etorri gara eta oso-oso ondo dago: animaliak, azoka... Dena den, gauza gutxi erosten da, garestitxoak dira-eta".

**ARAMAIO** > AHT-REN AURKAKO MENDI MARTXA

# AHTk Aramaion zeharkatuko dituen bazterrak ikusi dituzte

## Asier Agirre alkatea apirilaren 14an epaituko dute eta kale agerraldia deitu dute bezperarako

**OIHANA ELORTZA** > ARAMAIO

AHTk ukituko dituen eremuak ikusteko mendi martxa, herri bazkaria eta kontzertuak egin zituzten zapatuan Aramaion.

**HIRU ORDUKO MARTXA**

10:00etan hasi zuten mendi martxa herriko biribilgunetik. Azpiegitura erraldoi horren obrak egiten diharduten parajeak ikusi zituzten ibilaldian. Aramaiotik eta inguruko herrietatik, Arrasate eta Otxandio, adibidez, joandako 60 bat lagunek hartu zuten parte, Aramaioko gazte asanbladako eta AHT Gelditu! Elkarlaneko banderak aldean zituztela. Herritik Barajuen auzoko bidea hartu zuten ibiltariek eta dagoeneko eraikita dauden zutabeak ikusi zituzten han. Eskoriatzako Marin auzotik, San Adrian azpitik Barajuenera heltzen den tuneleko obrak ikusi zituzten, hain zuzen ere. Ibilbide guztian zehar kanpotik ikusi zituzten Abiadura Handiko Trenaren lanak, obra barrura sartu barik.

**BAZKARIA ETA KONTZERTUAK**

AHTk Aramaion izango duen eragin nagusia Barajuen auzoko Bolinburu baserriaren inguruan dago, eta inguru horretan egin zuten ibilaldiaren geldiune luzeena.

Barajueneko elkarte gastronomikoan hamarretakoa egin ostean, herrirako bidea hartu zuten ibiltariek. Bazkal ordurako herri bazkaria zuten antolatuta herri eskolan. Mendi martxan parte hartu zutenez gainera, beste hainbat herritar ere joan ziren hitzordu horretara; guztira 80 lagun elkartu ziren bazkaltzeko.

19:00etan kale agerraldia egin zuten plazan eta 20:00etan, berriz, Aramaioko Gorroto eta Alta Tension musika taldeen kontzertua eta Oñatiko erromeria talde baten musika emanaldia hasi zen.

**APIRILAREN 14AN EPAIKETA**

Asier Agirre Aramaioko alkatea apirilaren 14an epaituko dute AHTren inguruko herri galdeketa egiteagatik, eta horren harira kontzentrazioa deitu du Aramaioko gazte asanbladak. Epaiketa baino egun pare bat lehenago egingo dute agerraldi hori, herriko plazan.



10:00etan abiatu zuten mendi martxa herritik. ARAMAIOKO GAZTE ASANBLADA



Parte hartzaileak Azkoaga eta Barajuen auzoei begira. ARAMAIOKO GAZTE ASANBLADA



Biteriko ekimenetan parte hartu zuten gazteetako batzuk, zapatuan. U.M.

**ARRASATE** > GAZTEAK

# Elkarrekin jolasten eta gauzak ikasten, Erdigunea Piztu dute

## Gazte batzuek ikasi dute bidea Txatxilipurdik tarteka egiten dituen asteburuko ekimenetara

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Batzuk txalaparta jotzen ikasi zuten, beste batzuk kamisetak margotzen ahalegindu ziren, bitxiak egiten jardun zuten beste askok, hankapalotan oreka mantentzen ibili zirenak ere bazeuden eta baita balance-biketan karrerak egiten.

Halakoei esker, zapatu arratsalde hasieran Biteri plaza zen Arrasaten musika, barre eta zarata gehien batzen zuen gunea. Ageri an geratu zen Txatxiliupurdi elkartearen Erdigunea Piztu ekimena badabilela fruituak ematen; eta gazteek eurek ere eskertzen dutela halako zerbait izatea asteburuetan herrian bertan, inora joan beharra izan barik. Horren adibide zapatuko partaide asko "errepikatzaileak" zirela lehenago egindako Erdigunea Piztu ekimenetatik.

**HURRENGOA MAIATZA-EKAINEAN**

Orain, Aste Santuko bestelako irteera eta ekitaldiei lekua egin, eta Erdigunea Piztu ekimenaren hurrengo hitzordua "maiatza-ekaina" bitartean egin dute. "Ikasturteari amaiera emateko festa potentea" antolatuko dutela aurreratu dute Txatxilipurdikoek.

**ELGETA** > ZUHAITZ EGUNA

# Zuhaitz Eguna aprobetxatu zuten obren emaitza erakusteko

## Asentzio berritu, eta 50 aparkaleku, komunak eta mahai eta parrilla berriak ipini dituzte

**UBANE MADERA** > ELGETA

Eguzki gozoa lagun, dozena bat pago kimu landatu zituzten elgetarrek Asentzion atzo, Zuhaitz Egunean, "inguruan pagoa dagoelako landatu ditugu pagoak, gerra denborako pagoak dira batzuk", kontatu zuten partaideek.

Zuhaitz Eguna, baina, ez ohikoa izan zen. Pagoen landaketa aprobetxatu zuten-eta, Asentzio inguruan egin dituzten berrikuntza obrak erakusteko: 50 aparkaleku (autobus zein automobilendako), komun berriak (automatikoak), harez egindako bidegorria, eta ermitaren inguruan, mahai eta parrilla berriak.

**DATORREN URTERAKO PREST**

Oro har baina, ingurua txukuntzea baino helburu handiagoa izan dute Asentzioko obrek. Batetik, ingurumena babestea; horregatik bota dute harea asfaltoaren lekuan, bide naturalagoa sortuz. Era berean, bidea itxi egin dute, Asentziora bertara autoarekin edozein sar ez dadin.

Eta bestetik, "Elgeta eta Asentzio arteko lotura handitu" egin gura izan dute bidegorriaren bitartez, Oxel Erostarbe alkateak azpimarratu moduan. Izan ere, azkenaldiko obren bitartez, txukundu eta bisitariendako gertu ipini dute Espainiako gerrarekin lotutako gunea: Intxortako trintxerak berritu, Intxortako Atea monumentua, eta orain, Asentzio egokitu.



Elgetarrak (Oxel Erostarbe alkatea tartean) pagoak landatzen, atzo, Asentzion. UBANE MADERA

**ZERBITZUAK** > UDALEKUAK

# Zabaldu dute izena emateko epea Arrasateko udalekuetan

Ahalik eta lasterren eman behar da izena, kopuru mugatuak izango direlako

Kuotetan deskontuak izango dituzte familia ugariek eta Topakide txartelaren onuradunek

**J. BEREZIBAR / U. MADERA** > ARRASATE
Txatxilipurdiren udalekuak ez dira ezezagunak gurean; ez daroate alferrik "22 urtez aisialdi hezitzailea eta euskara uztartzen". Urteek emandako esperientzia zabal horrekin, aurten ere adin guztietarako eskaintza osatu dute udaleku ireki zein itxietan.

**UDALEKU IREKIAK**
Udaleku irekiak Arrasaten bertan egiten dituzte, 2 urtetik 10 urtera bitarteko neska-mutikoei zuzenduta. Aurten ekainaren 28tik uztailaren 23ra artekoak izango dira, hiru gunetan, adinaren arabera banatuta: *Bilin-boloka*: 2007an jaiotako haurrentzat, San Andresen (100 euro); *Beibilekuak*: 2004-2006 bitartekoentzat Musakolan (120 euro), eta *Bihurrikeixetan*: 2000-2003koendako, erdigunean (goizez, 150 euro; egun osoan, 180 euro).

Aurten astebete gehiago iraungo dute udaleku irekiek, eta jakinarazi dute zaintza zerbitzua ere eskainiko dutela (09:00-10:00, 40 euro).

Izenematea zabalik dago maiatzaren 7ra arte. Ahalik eta lasterren apuntatzea komeni da, kopuru mugatua izango delako. Eta lehentasuna izango dute, gainera, Arrasateko haurrek.

**DESKONTUAK**
Bestalde, kuotetan deskontuak izango dituzte familia ugariek eta Topakide txartelaren onuradunek (%5). Izenemate orriak bete ostean, Pablo Uranga 6an dituzten bulegoetara eraman behar dira, ordaindutako kuotaren ziurtagiriarekin batera (09:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara).

**GURASO BILERAK**
Ohi duten moduan, udaleku itxietan parte hartzen dutenen gurasoekin batzarrak egingo dituzte, informazioa helarazteko. Ekainean izango dira, 14, 15 eta 17an. Erdiguneko eta San Andresko udalekuetakoekin Kulturaten egingo dituzte eta Musakolakoekin, Santamarinako ludotekan.

**UDALEKU ITXIAK**
Udaleku itxiei dagokienez, berriz, 10-12 eta 14-16 urtekoendako *Askizu* eta *Kosta ala Kosta* eskualde mailako udalekuak antolatu dituzte Txatxilipurdikoek Jardun (Bergara) eta Loramendi (Aretxabaleta) elkarteekin batera.

Horrez gainera, Txatxilipurdik urteroko Orioko udalekuetarako lekua ere hartu du. Kasu horretan 40 lagunendako lekua izango da, bi txandatan: uztailaren 2tik-12ra eta 12tik 22ra. 250 euroko prezioa dute udalekuok eta izenematea zabalik dago. Udaleku itxietan ere aplikatuko dituzte deskontuak.

**BEGIRALE BILA**
Udalekuen harira, Txatxilipurdik jakinarazi du udalekuetan begirale bezala lan egiteko gazteak behar dituela.

Baldintzak honako hauek dira: 18 urte edo gehiago izatea, euskara jakitea eta Txatxilipurdik antolatzen dituen begirale formazio saioetan parte hartzea.

Izena emateko azkeneko eguna da maiatzaren 7an.

Aukeraketa egiterako orduan, kontuan hartuko dituzten irizpideak, berriz, honako hauek dira: begirale titulua izatea; ikasketak izatea; esperientzia; lanerako prestutasuna eta bizilekua.

**Amagoia Aristegi** > Txatxilipurdi elkarteko teknikaria

## "Sare sozialetan guk ematen dugu gure bizimoduaren berri"

**UBANE MADERA** > ARRASATE
**Gero eta fama txarragoa dute sare sozial birtualek, norberaren intimitatearendako arriskutsuak direlakoan. Hala ere, ezin ukatu askorendako eguneroko tresna direla, elkarkomunikatzeko ezinbestekoak. Arrasateko Txatxilipurdi elkarteak, aisialdi birtualak duen garrantziaz jabetuta, ikerketa egin du 10-18 urte bitarteko 460 gazteren artean. 11 galderaz osatutako galdetegian sare sozialen gainean galdetu diete. Amagoia Aristegi Txatxilipurdiko teknikaria arduratu da ikerketaz.**

**Zein ondorio atera duzue?**
Tresna horiek, bere horretan, ez direla ez onak eta ezta txarrak ere. Ematen zaion erabilera da garrantzitsua, eta erabilpen osasuntsua bultzatu behar dugu, arlo horretan gazteak ere alfabetizatuta. Bizitzako arlo desberdinetan hezten ditugun moduan, teknologia arloan ere hezi egin beharko genituzke.

**Zer da kontuan hartu beharko genukeena, batik bat?**
Halakoak erabiltzeak sor ditzakeen ondorioak. Nagusietako bat kontrol soziala da. Orain arte tresna asko izan dira gure bizimodua jarraitu eta kontrolatzea helburu dutenak: kaleko bideokamerak, kreditu txartela, mugikorra... Sare sozial birtualekin beste pauso handi bat eman dugu: guk ematen dugu gure bizimoduaren berri, guk igotzen ditugu gure eta lagunen argazkiak, guk idazten dugu publikoak diren paretetan, gu bihurtzen gara talde edo pertsona baten zale... Gaztetxoenak tresna horiek erabiltzen hasten diren momentutik ohartarazi behar ditugu pribatutasunaren garrantziaz.

**Zera gabiltza entzun eta entzun: arrisku handiak dituztela sare sozialek...**
Sarera igotako norberaren edo ingurukoen argazkiak desegokiak izan daitezke, edo hirugarren batzuek erabilpen desegokia egin dezakete. Kontuan hartu beharra dago ordenagailuak dendena apuntatzen duela. Erasoak ere izaten dira, *ziberbulling*-a; izan ere, sarean, kalean bezala, min egin dezaketen pertsonak aurki daitezke. Hala ere, sareak eskain dezakeen anonimotasunari esker, euren nahiak errazago bete daitezke. Bortxakeria, arrazismoa, sexismoa... duten eduki ugari aurki daitezke. Erostera bultzatzen duten iragarki askok kontsumismoa bultzatzen dute. Iruzurra helburu duten pertsona edo taldeak ere aurki genitzake. Batzuetan, neurri gabeko denbora galtzea eta adikzioa ekartzen dute. Baina, esan bezala, arriskuok saihestu egin daitezke erabilera osasuntsuarekin.

Dena den, onurak ere badituzte; garrantzitsuena da bizitza errealean egiten ditugun ekintzak mundu birtualean egiteko aukera: entzun, parte hartu, eztabaidatu... modu aktiboan, ez ikusle moduan. Gaurkotasun handia ematen dute; talde bateko kide izatearen sentimendua; eta teknologiaren erabilera modu errazean ikasteko aukera ere bai.



Amagoia Aristegi, Txatxilipurdiko teknikaria, elkartearen egoitzan. U.M.

**Gazteek zertarako erabiltzen dituzte? Zein da erabiliena?**
Komunikatzeko, denbora pasatzeko, kuxkuxeatzeko eta gutxi batzuek ligatzeko. 13 urtetik aurrera *Tuenti* da erabiliena, duda barik. Gure eskualdean adin horretakoek eta gaztetxoagoek *Zugaz* erabiltzen dute.

**Euskarazko sare soziala da *Zugaz*; hori garrantzitsua da?**
Euskarak bizirik irauteko esparru eta arlo guztiak bereganatu behar ditu, garai eta egoera desberdinetara moldatu. Horregatik, ezinbestekoa da Interneten eta sare sozial birtualetan euskararen presentzia bermatzea.

**Ikerketaren emaitza ikusita, zerbait egiteko asmorik bai?**
Ludoteketan orain arte ez da egon ordenagailurik. Planteatu dugu Internet eta sare sozialak beste edozein bitarteko moduan erabiltzea. Baina bakarrik ibiltzearen arriskuak ikusita, planteatu dugu taldean nabigatzea, eta, horrekin batera, gazteei erabilpen osasuntsua erakustea. Gaztetxokoetan, berriz, lasai erabiltzen dute Internet, eta sare sozialetan asko ibiltzen dira. Hala, arriskuez ohartarazteko esketxak grabatu ditugu eta kartelak ipiniko ditugu.

**"Sare sozialak bere horretan ez dira ez onak ez txarrak, erabilera da garrantzitsua"**

**"Ezinbestekoa da sare sozialetan eta Interneten euskararen presentzia bermatzea"**

**GIZARTEA**

## Garagardoa eta cava ere bai eguenetan

Maiatzeko, ekaineko eta iraileko azken eguenetan aukeratu ahal izango dira

**U.M.** > ARRASATE
Eguenetako ardo biraren eskaintza handitu egin behar du Arrasate Bizirik ostalaritza elkarteak. Handitu, edari aukerei dagokionez. Apirilaren 8tik aurrerako eguenetan, ardoaz gainera Amstel garagardoa ere aukeratu ahal izango da tapari laguntzeko, Arrasate Bizirik elkarteko tabernetan. Jakina, ardoarekin moduan, hori ere euro baten truke. Hala jakinarazi du Juan Carlos Davilak, Arrasate Bizirik elkarteko kideak eta Monte tabernako ugazabak.

**CAVA ERE BAI**
Horrekin batera, jakinarazi du, baita ere, maiatzeko, ekaineko eta iraileko azken eguenetan, ardo onduarekin eta garagardoarekin batera cava ere aukeratu ahal izango dela.

**ASTE SANTUAN ETENALDIA**
Bukatzeko, gogora ekarri du datorren eguenean, apirilaren 1ean, Aste Santua hasten dela kontuan hartuta, eguenari dagokion ardo birak etenaldia izango duela.

**UDALA** > ZERBITZUAK

# Pazko astean ere eskainiko dira kirol ekintzak Agorrosin Ekintza Gunean

Martxoaren 29tik apirilaren 3ra itxita egongo da garbiketa lanetarako

Garbiketa Aste Santura aurreratu dutenez, Pazko astean zabalik egongo da



Agorrosingo erabiltzaileak gimnasioan. ARTXIBOA

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Martxoaren 29tik apirilaren 3ra –biak barne– itxita egongo da Agorrosin Ekintza Gunea. Arduradunen esanetan, sei egunotan beharrezkoak diren garbiketa eta mantentze-lanak egingo dituzte. Hain justu ere, urtean birritan egiten dituzte halakoak. Hurrengo garbiketa astea irailean izango da, San Martin jaien ostean.

**PAZKO ASTEAN ZABALIK**
Aurreko urteetan Pazko astearekin egiten zuen bat Agorrosinen itxierak. Baina aurten, garbiketa datak aurreratuta, Pazko astean, apirilaren 6tik aurrera, zabalik egongo da Agorrosin Ekintza Gunea, eta, bertoko arduradunen esanetan: "Kirol eremu guztiak zabalik egoteaz gain, kirol ekintza guztiak eskainiko ditugu, aurreko urteetan ez bezala". Hain justu ere, erabiltzaileengan pentsatuta hartu du erabakia Udalak, probetxu handiagoa atera ahal diezaioten ekintza guneari.

Iraileko garbiketari dagokionez ere, erabiltzaileengan pentsatuta hartu dute itxiera datak atzeratzeko erabakia udal arduradunek. Aurreko urteetan, uda kanpaina bukatu bezain pronto itxi izan dute. Aurten, San Martin jaien ostean itxiko dute ekintza gunea garbitzeko: irailaren 20tik 25era, hain justu ere.

**EUSKARA**

## Koldo Eleizalde lehiaketa abian da

Apirilaren 15a da lehiaketan parte hartzeko azken eguna

**M.B.** > BERGARA
Udaleko Euskara Sailak antolatzen duen Koldo Eleizalde literatura lehiaketara lanak bidaltzeko azken egunak dira. Hain justu ere, apirilaren 15a da mugaeguna. Baldintzak kaleratu dituzte.

Ipuin idatzia, bertsoak, komiki-tira, ipuin-kontaketa edo antzerkia, txiste eta umorezko pasadizoak eta eskola-irratia generoetan lehiatu ahal izango da.

Lehiaketan parte hartu ahal izango du Bergaran jaio, bizi edo lan egiten duen edozeinek, bakarka zein taldeka, eta lanak aurkeztuko dira Udaleko Euskara Sailean.

Parte-hartzaile guztien artean zozkatuko dira euskarazko aldizkari batzuen harpidetzak. Informazio gehiagorako udal webgunera jo: *www.bergara.net*.



JUAN MARI SASIGAIN

## Pol-Poleko beteranoak Madrilen

San Joseko zubia Madrilen eman dute Pol-Poleko beteranoek. Boceguillas izan zuten erdigune eta handik egin zituzten irteerak. Lehenengoan, La Cabrera-La Cabrera bost orduko martxa zirkularra egin zuten; bigarrenean ere bost orduko ibilbidea egin zuten Bustarviejo herrian hasi eta Garganta de los Montes herriraino. Azkeneko egunean, Ayllon (Segovia) ikusi zuten eta Lerman (Burgos) bazkaldu. Hurrengo irteera egingo dute apirilaren 18an: Erice-Trinidad-Latasa (Nafarroa) ibilaldia.

### oharrak

ERRETIRATUAK
**> Mendi ibilaldia antolatu du San Joxepek**
Martxoaren 30ean egingo dute eta ibilbidea izango da: Kanpanzar-Besaide-Udala. Izena emateko azken eguna da gaur, astelehena.

HAURRAK
**> Begiraleendako izenematea zabaldu dute udalekuetarako**
Uztaileko udaleku irekietarako izena eman nahi duten begiraleendako izenematea zabalduko dute eta martxoaren 31n bukatuko da. Baldintzak dira 18 urtetik gora izatea eta euskaraz jakitea; begirale titulua edukitzea ere baloratuko da. Izena emateko jo ludotekara 17:00-19:00 ordutegian edo deitu 696 91 38 08 zenbakira.

ZOZKETA
**> Gorlako igoerako zozketako zenbakiak atera dira**
Lehenengo saria egokitu zaio 001362 zenbakiari eta bigarrena, 03349 zenbakiari.

Altzari denda
Ikerleku zeharbidea
BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK

Aroztegia
San juan 1a
BERGARA
Tel.: 943 76 54 91
Faxa: 943 76 08 04

• Proiektuak
• Koltxoiak
• Horma-armairuak
• Altzariak neurrira
• Ateak
• Eskailerak
• Leihoak
• Tarimak
• Egur lanak orokorrean





**KIROLDEGIA** > LANAK

# Garbiketa egiteko, igerilekua itxita egongo da gaurtik apirilaren 5era arte

Kiroldegiko gainerako zerbitzuak ohiko ordutegian zabalduko dituzte; eguenean, egubakoitzean eta astelehenean izan ezik

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Zubikoa kiroldegiko igerilekua itxita dago gaurtik. Osakidetzak agintzen duen garbitasuna egiteko itxita egongo da apirilaren 5era arte, egun hori barne.

Ondorengo egunetan igerileku handia eta txikia hustu egingo dituzte, eta igerilekuetako paretak eta lurrak garbitu egingo dituzte eskuz. Ondoren, berriro beteko dituzte biak, klorazio, tenperatura eta PH egokia duen urarekin.

Zubikoa kiroldegiko arduradunek Aste Santuko oporrak aprobetxatzen dituzte igerilekuko garbiketa egiteko, eta kaleratu duten oharrean itxialdiak sor ditzakeen eragozpenak "barkatzea" eskatzen diete herritarrei.

**GAINERAKO ZERBITZUAK**

Igerilekua itxita dagoen arren, kiroldegiko gainerako zerbitzuak ohiko ordutegiarekin zabalduko dituzte Aste Santuan. Gaur, bihar eta etzi 07:00etatik 21:30era zabalduko dute; zapatuan, 09:00etatik 13:30era, eta 15:00etatik 19:30era; eta domekan, 09:00etatik 13:30era.

Aldiz, Eguen Santuan (apirilak 1), Egubakoitz Santuan (apirilak 2) eta Pazko astelehenean (apirilak 5) kiroldegiko zerbitzu guztiak itxita egongo dira.



LOREA FERNANDEZ

## Bigarren maila gainditu dutenei, diplomak

Jose de Azpiazu musika eskolako ikasle batzuek diplomak jaso zituzten aurreko asteko martitzenean. Hain zuzen ere, 2009-2010 ikasturtean bigarren maila gainditu zuten neska-mutikoek jaso zuten aipamena irakasleen eskutik. Pozik hartu zituzten diplomak, euren lana ondo egin duten seinale, eta guztiak argazkirako elkartu ziren.

Diploma banaketa musika eskolakoen udaberriko bigarren kontzertuaren bukaeran egin zuten. Aurretik, bi egunean, hilaren 22an eta 23an, ikasturtean zehar ikasitakoa erakutsi zuten oholtza gainean. Besteak beste, lehenengo moduluko ikasleek; abesbatzetakoek; piano, akordeoi eta trikiti-pandero eta haize taldekoek parte hartu zuten.

## oharrak

OSPAKIZUNA

**> Oñatin bizi diren aretxabaletarren bazkaria**

Apirilaren 17an egingo dute bazkaria Etxe Aundi jatetxean, baina izena emateko azken eguna gaur da. Interesatuek Arrano, Aloña edo Oñati tabernetan eman dezakete izena, edo 678 21 59 48 (Rosa) telefonora dei dezakete.

DEIALDIA

**> Ipuin kontaketarako gonbidapenak**

Apirilaren 2an ospatuko dute Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna. Hori ospatzeko, 5 eta 7 urte arteko neska-mutikoendako ipuin kontaketa saioa antolatu dute haur liburutegian biharko. Gonbidapenak liburutegian hartu beharko dira.

Hans Christian Andersenek idatzitako ipuinak kontatuko dizkie umeei Maite Francok.

**Urdin Elortza** > Bidezidor teknikaria

# "Leintz Gatzagatik Debarainoko GR bat falta zaigu ibarrean"

**M.B.** > OÑATI

**Urdin Elortza Gipuzkoako Mendi Federazioko bidezidor teknikaria da. Orain dela gutxi, Bizkaiko Uribe eskualdea oinez eta zazpi etapatan egiteko gidaliburua kaleratu du; *GR-280 Uribe*. Horren gainean egin dugu berba.**

***GR-280 Uribe* izeneko gidaliburua kaleratu berri duzu.**

Bai, hala da. Butroe eta Txorierriko haranak hartzen dituen Bizkaiko Uribe eskualdea oinez ezagutzeko gidaliburua egin dut. Orain dela bost urte homologatutako 105 kilometroko ibilbide zirkularra da, eta zazpi etapatan egiteko proposamena egiten dut. Etapa bakoitza bost bat orduan egiteko modukoa da; oro har, errazak dira.

**Etapa bakoitzaren gaineko informazioa zehaztu duzu?**

Bai. Etapa bakoitzeko zailtasun mailak, mapak, desnibelak eta lurzoruak zehazten ditut, besteak beste. Era berean, bidean zehar dagoen kultura, historia eta arkitektura ondareari buruzko informazioa bildu dut; besteak beste, Bilboko burdinazko gerrikoaren, Butroe ibaiko angularrantzaleen eta Zamudioko upeltegien gaineko informazioa.

Bestalde, GR-280ak Uribe eskualdea osatzen duten 23 udalerriak zeharkatzen ditu, eta horien gaineko informazio guztia batu dut.

**Zein da GR bat egiteko prozedura?**

GR baten kasuan prozesua luzatu egin ohi da, Mendi Federazioak ezartzen dituen irizpide batzuk jarraitu behar dira-eta. Lehenengo, egin gura dugun ibilbideak zeharkatzen dituen herrietako bide publikoen zerrenda eskuratu behar dugu. Ondoren, bide zaharrak berreskuratzeko ibilbidea nondik nora egin daitekeen zehazten dugu. Alegia, eskualde bereko herrien arteko oinezko lotura egiten ahalegintzen gara. Beharrezkoak diren baimen guztiak bildu ondoren, garbiketa eta markatze lanak egiten ditugu, eta azkeneko pausoa gidaliburua argitaratzea da. Halako gidaliburuak landa-turismoa indartzeko egitasmo aproposak dira. Adibidez, gidaliburu honek Uribe eskualdeko herri eta auzune ezezagunagoetan sakontzeko aukera ematen digu.



Urdin Elortza GOIENKARIA

**Zein da egingo duzun hurrengo gidaliburua?**

Gipuzkoan topo-gida asko egiteko materiala dago. Egun, Foru Aldundiarekin elkarlanean gabiltza ibilbide homologatu guztien berrikuskapena egiteko, modu egokian zaindu ez diren ibilbide asko daude-eta. Gure asmoa da ibilbideak txukuntzea eta gero egingo ditugu topo-gidak.

**Ze egoeratan daude GR-ak eta PR-ak Debagoienean?**

Denetarik dago, baina, oro har, gure eskualdekoak nahiko ondo daude. Mankomunitatea saiatu da urtero bideak garbitzen eta txukuntzen. Dena den, esango nuke GR bat falta zaigula ibarrean. Gatzagan hasi eta Debaraino joango litzatekeen ibilbide bat; Debagoieneko eta Debabarreneko herri gehienak zeharkatuko lituzkeena. Dena den, horrenbeste errepide eta azpiegitura erraldoirekin, laster ez zaigu oinez ibiltzeko leku handirik geldituko!

**ARETXABALETA** > AUTOBUSA

# Autobidetik joango dira autobus batzuk Gasteizera

Apirilaren erditik aurrera izango da eta ordu bikoitietakoak joango dira

**M. A.**> ARETXABALETA
Gasteizera autobidetik doazen autobusak apirilaren erditik aurrera gurean ere geratuko dira. Hala iragarri zien Arantza Tapia diputatuak Aretxabaleta eta Eskoriatzako alkateei martxoaren 9an egindako batzarrean.

Autobidetik doazen autobusak ez dira pasatzen ez Aretxabaletatik, ezta Eskoriatzatik ere. Arrasateko geltoki nagusitik, Garibai kalean, atzera egin eta Arrasaten bertan hartzen dute autobidea. Tapiak oniritzia eman dio bi herrietako alkateek egindako eskaerari eta jakinarazi die apirilaren erditik aurrera –data zehaztu barik– bi herrietako bidaiariak hartu eta Eskoriatzan sartuko direla autobidean. Ordu guztietan doaz autobusak Gasteizera eta autobidekoak ordu bikoitietan pasatuko dira: 08:10; 10:10; 12:10; 14:10; 16:10; 18:10; eta 20:10.

**DONOSTIARA GEHIAGO**
Eskaera horrekin batera beste bi egin dizkio Inaxio Garrok Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatuari: Donostiara joan-etorria egiten duten autobus gehiago pasatzea guretik, Arrasatera joan beharrik ez izateko; eta Otalora kalean –Santa Kurtz eta Bedarretatik gertu– beste geltoki bat egokitzea. Izan ere, Errekabarren kaleko geltokia kendu zutenetik herriko iparraldean bizi diren hainbat bizilagun kexu dira oso urrun gelditzen zaielako Azbe lantegi parekoa.

Azken bi eskaera horiek oraindik ez dute jaso oniritzirik, baina aztertu eta lehenbailehen erantzutekotan geratu dira Aldundiko ordezkariak.

**ARETXABALETA** > IKASTAROA

# Eraikinen osasunari buruz gehiago jakiteko saioak

Apirilaren 15ean hasi eta zazpi saio egingo dituzte martitzen eta eguenetan

**M.A.** > ARETXABALETA
Geobiologia eta erradiestesiaren teknikak erabilita, eraikinen osasun baldintzen azterketa egiten erakutsiko dute datorren hilean. Asier Agirre aditua izango da ikastaroaren gidaria (euskaraz) eta apirilaren 15ean hasita zazpi saio egingo ditu, martitzen eta eguenetan, Arkupen (19:00-21:00).

Izena aurrez eman behar dute interesatuek Arkupen bertan. Ikastaroaren kostua 120 euro da.

**BARILLAK ETA PENDULUA**
Eraikinen osasunaren gainean gehiago jakiteko antolatutako oinarrizko ikastaroa da. Hala, barilla eta penduluarekin energiak kokatzen irakatsiko du Agirre adituak –ur korronteak, fallak, fisurak, sare energetikoak...–, baita gorputzarekin sentituz edo oinarrizko kinesiologia teknikak erabilita ere. Pendulua eta barilla horiek Agirrek berak emango dizkie ikastaroa doazenei.

Zazpi saio horietan honako gaiak landuko dituzte: elektromagnetismoa, eraikinetako instalazio elektrikoak, bioeraikuntza teknikak –materialak, egiturak...–, koloreak, geometria naturala, formen energia eta oinarrizko Feng Shuia.



Lur-jausia gertatu zen menditxoan langileak lanean egubakoitz goizean. M.A.

**ESKORIATZA** > ARANBURUZABALA KALEKO LANAK

# Beste lur-jausirik ez dela gertatuko bermatuko dute konponketa lanekin

Hilabete beharko dute lur-jausiak eragindako kalteak konpontzeko; zortzi etxebizitzatako bizilagunek etxetik kanpora jarraitzen dute

**MIRARI ALTUBE** > ESKORIATZA
Joan den astelehenean hasi zituzten Aranburuzabala kale ostean gertatutako lur-jausia konpontzeko lanak. Zut enpresari eman zion lanon ardura Udalak eta langileak dagoeneko hasi dira inguru guztia gertatzen.

Zuhaixkak eta landareak moztu dituzte eta bidetxoak egokitu, malda handia dagoelako bertan lan egiteko. Ondoren, lur-jausia izandako malda bihurdura hirukoitzeko sarearekin babestuko dute eta haitz-maldari eusteko hormigoi armatuko horma egingo diote. Hilabete beharko dutela horretarako iragarri du enpresak.

**MAIATZERAKO, DENAK ETXEAN**
Lan horien guztien berri emateko batzarra egin zuen eguaztenean Udalak lur-jausiarekin kaltetuak izan ziren bizilagunekin. Udal ordezkariekin batera proiektuaren arduraduna izan zen batzarrean zalantzak argitzeko. Bertan izandako bizilagun batzuen esanetan, ia %100ean bermatu zien "halako beste lur-jausirik ez dela izango" lanok egindakoan.

Bizilagun batzuk oraindik etxetik kanpo daude: 26. atarteko lau etxetakoak eta 28. eta 30. atarteetan bina. Maiatzerako lanak bukatu eta etxeetan izango direla iragarri zieten batzarrean, betiere uste bezala eginez gero aurrera lanok; hau da, eguraldiak lagunduta, ezustekorik gertatu barik...

**Leire Zubillaga** > Aretxabaletako Kurtzebarri eskolako ikaslea

## "Bullying'-a jasaten dabilen mutiko bati gutuna idatzi nion"

**M.A.** > ARETXABALETA
**Haurren Eskubideen Konbentzioaren 20. urteurrenean *Eskubideak eta betebeharrak* kanpaina jarri zuen abian Jaurlaritzak. Horren barruan lehiaketa antolatu zuen integrazioari eta eskola jazarpenari buruzko egoerak salatzeko. Eta lehiaketa horretan saria jaso du Kurtzebarri eskolako ikasle Leire Zubillagak.**

**Zer egin zenuen lehiaketarako?**
Gutuna idatzi nuen *bullying* gaiaren gainean. Gelako guztiok egin genuen lana eta gura izan genuenok gero lehiaketara aurkeztu.

**Eta zeren gainean idatzi zenuen?**
*Bullying*-a jasaten dabilen mutiko bati idatzi nion gutuna laguntza eskaintzen, neu ere hortik pasatutakoa banintz bezala.

**Gai samurra ez da, ba...**
Ez, baina aurretik horren gaineko filma ikusi genuen eskolan, eta samurragoa izan zen horrela. Ondoren, gainera, *bullying*-aren gaineko hausnarketa egin genuen eta gelakide guztiok azaldu ginen aurka.

**Gertutik ezagutu duzu halakorik?**
Ez, nire inguruan ez zait egokitu. Laguntzen saiatuko nintzateke hori gertatuz gero baten bati.

**Ezustekoa hartu zenuen sariaren berri eman zizutenean?**
Bai, ezusteko galanta. Ikasturte hasieran egin genuen lantxoa eta guztiz ahaztuta neukan.

**Zer izan da saria?**
IPod bat.



Leire Zubillaga. M.A.

Hirusta
Jatetxea
Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

IRIARTE
Umeen denda
•
Helduen lentzeria
Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA



Joseba Asiron, Txente Rekondo, Angel Rekalde eta Goiatz Arana kazetaria GOITBko platoan. USOA AGIRRE

**ANTZUOLA** > ARMARRIA

# Adituek kanoiei buruz duten iritzia eman dute

Diote gipuzkoarren ikuspuntutik kendu beharko liratekeela kanoiak; Udalak laster jakinaraziko du zeintzuk izango diren hurrengo pausoak

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

Eguenean, GOITBko *Goiena magazinea* saioan Antzuolako armarria izan zuten berbagai. Joseba Asiron historialaria, Txente Rekondo nazioartean aditua eta Angel Rekalde soziologoa eta Nabarralderen koordinatzailea izan ziren platoan, Goiatz Arana kazetariaren galderei erantzuten.

**HAINBAT IKUSPUNTU**

Asironek, historialari moduan, adierazi zuen historian zehar gertatutakoa onartu egin behar dugula. "Nafartasun historikotik ikusita, kanoiak kentzearen aldekoa naiz. Hala ere, nafar moduan esan behar dut kanoiak egoteak ez didala min berezirik egiten. Pentsatzen dut gipuzkoarren ikuspuntutik kendu beharko liratekeela", gaineratu zuen. "Argi dago hau historia kontua dela. Nork idazten du historia? Beti garaile ateratzen direnek idazten dute", gaineratu zuen nazioartean aditua den Rekondok.

**ARMARRIKO KANOIAK**

Belateko guduaren gainean esan zuten gertaera txiki bat izan zela, baina mitifikatu egin zutela interes politikoengatik. Hala, gipuzkoarren eta nafarren artean "ikamika sortzeko" eman zizkioten kanoiak gipuzkoarrei.

**KENTZEKO ARRAZOIAK**

Antzuolak 1945ean hartu zituen kanoiak. Zergatik? "Hartu zuten inertzia moduan, ez dago beste arrazoirik", zioen Rekaldek.

Gipuzkoako armarritik 1979an kendu zituzten kanoiak. "Arrazoia zen nafarrekiko harremanak ongi bideratzea. Nik uste dut kendu behar direla norberak baloratu behar duelako ze identitate zeinu izan nahi dituen", dio Asironek. "Euskaldunok izan dugun estatu bakarraren independentziaren galeran gipuzkoarrek egindako ahaleginaren sinboloa dira kanoiak", esan zuen. Orain, herritarren iritzia falta da.

**LEINTZ GATZAGA** > ERRETIRATUAK

# Debagoieneko erretiratuen elkarteetako jokalari onenak gaur kartetan Toki Ederren

60 bat lagun elkartuko dira musean, tutean eta briskan jokatzera; Gipuzkoako txapelketarako sailkatuko dira onenak

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Karta jokoan jardungo dute gaur arratsaldean (15:30) Toki Eder erretiratuen elkartean –Garro jauregian–. 60 bat lagun elkartuko dira, guztiak Debagoieneko erretiratuen elkarteetako bazkideak, eta Gipuzkoako txapelketarako sailkatzeko asmoarekin etorriko dira. Aurretik kanporaketak jokatu dituzte herri bakoitzeko elkarteetan, eta, hain zuzen, irabazleak dira Gatzagara indarrak neurtzera datozenak. Musean, tutean eta briskan egingo dute bikoteka eta modalitate bakoitzeko irabazleak Debagoieneko txapeldun izendatuko dituzte.

**IAZ TXAPELA GATZAGARA**

Erretiratuen elkarte batzuetan ohitura handia dute karta jokoan egiteko eta hori igarri egingo da gaur. Iaz Gatzagako emakume bikote batek eskuratu zuen txapela Gipuzkoako txapelketan, briskan eginda. Maritxu Plazaola eta Beni Altuna izan ziren oneak eta aurten ere izendapen horri eutsi gurako diote. Hala ere, ez da samurra izango, kanporaketa gainditzeko Debagoieneko erretiratu onenei irabazi beharko diete-eta gaur.

**ELGETA** > TELEBISTA

# Pare bat aste barru iritsiko da GOITB digitalean herrira

Ezinbestekoa zen horretarako GOITBk Bergarako San Migel dorretik seinale digitala bidaltzea, eta martitzenean hasi zen horretan

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Arduradunen esanetan, pare bat aste barru iritsiko da Elgetara Goiena Telebistaren seinale digitala. Debagoieneko telebista martitzenean, hilak 23, hasi zen lurreko telebista digitalaren seinalea Bergarako San Migel dorretik bidaltzen. Salto hori ezinbestekoa zen seinalea Elgetara iristeko. Bergararrek dagoeneko digitalean ikusten dute GOITB; elgetarrok, laster.

**LANAK URUBURUN**

Goiena Telebistaren seinalea Uruburun kokatuta dagoen antena batera iristen da herrira. "Ekipo analogikoak kendu eta digitalak ipini behar ditugu", adierazi du Goienako Oihane Agirrek. "Hasiak gara horretan". Gauzak ondo bidean, teknikariek aurreikusten dute pare bat astean lan horiek amaituta egotea; hortik aurrera, 52. kanalean ikusiko dugu GOITB.



Teknikariak Bergarako San Migel antenan egokitzapen lanak egiten. OIHANE AGIRRE

**ARAMAIO** > KULTURA

# Film entzutetsuak iritsiko dira Aramaiora apirilean

Emanaldiak egubakoitzero izango dira kultura etxean, 22:15ean

**E.M.** > ARAMAIO

Udalak kaleratu du dagoeneko apirileko zinema emanaldien programazioa. Oraingo egubakoitzean, apirilaren 2an, *Mi nombre es Harvey Milk* emango dute (Sean Penn aktoreak Oscarra irabazi zuen iaz, film horretan egindako lanagatik); apirilaren 9an, Daniel Sanchez Arevalo zuzendariaren *Gordos* filmaren txanda izango da; apirilaren 17an, *Yo, también* emango dute (Lola Dueñasek eta Pablo Pinedak interpretazio saria eskuratu zuten azken Zinemaldian); hilaren 23an *Celda 211*, azken Goya sarietan irabazle nagusia izan genuen filma (zortzi sari eraman zituen Daniel Monzonen filmak); eta apirilaren 30ean, *Avatar*, hiru Oscar sari irabazi berri dituen James Cameronen zientzia fikziozko filma.

Emanaldi guztiak kultura etxean izango dira, 22:15ean. Sarrera euro bat izango da.

**JAI BATZORDEA, GAUR**

Uztaileko San Martin jaiak gertatzen joateko bigarren bilera egingo du gaur, astelehena, Jai batzordeak udaletxean. Bilera irekia da gaiarekin interesa duten guztiendako. Hitzordua 19:00etan da.

**KARTEL LEHIAKETA**

Zuiako Udaleko Euskara batzordeak kartel lehiaketa deitu du. *Zuia Euskaraz, Euskal Kantak* da lehiaketaren leloa eta oinarriak eskuragarri daude *www.zuia.com* webgunean.



> **FUTBOLA**
Bergarak 3-1 menderatu zuen Aloña zapatuan Agorrosinen jokatutako derbian > 18



> **SASKIBALOIA**
Aloñako senior mailako saskibaloi taldeak sufrituta irabazi zuen Araberriren kontra > 19



> **MENDI LASTERKETAK**
Aloñako igoera apirilaren 25ean jokatuko dute eta izenematea zabalik dago apirilaren 18ra arte > 20

# Bigarrengoz Ismael Esteban azkarrena

**PARTE-HARTZAILEAK** 134 txirrindularik hartu zuten irteera Aramaioko Arriola auzoan

**GOGORRA** Ziklista guztiek asko sufritu zuten ibilbideko aldapatan eta azkeneko jaitsieran

**MIREIA BIKUÑA** > ARAMAIO
Irteerako seinalea entzun orduko aurrera egin zuen Ismael Estebanek. Bere erritmoa jarri, eta atzera begiratu barik, bakar-bakarrik egin zituen Aramaioko Openeko kilometro gehienak. Lehen itzulia egin orduko, 20 bat segundoko aldea zuen Joseba Leonekin eta Unai Yusekin. Kantabriarrak erakutsi zuen indartsuena dela denboraldi hasieran, eta iazko garaipena berretsi zuen.

Irteeratik gertu lehen aldapa gogorra zegoen. Harriak zeuden, eta batek baino gehiagok arazoak izan zituen lehen metroetan. Ismael Estebanek, sasoi onean zegoela baliatuz, erritmoa bizitu zuen, eta lasterketa buruan jarri zen. Ibilbidearen albo bietan zeuden zaleek ikusi zuten, erorikorik izan ezean, berak irabaziko zuela proba.

Hortaz, bigarren postua lortzeko lehia izan zen erakargarriena. Yus eta Leon nor baino nor ibili ziren, bata besteari aurrea hartzen. Azkenean, baina, Leonek minutu bateko tartea atera zion helmugan.

**DEBAGOIENDARREN IRITZIAK**
134 txirrindularik hartu zuten irteera Aramaioko Arriola auzoan zegoen helmugatik. Tartean CDR, Sumofic eta Lizarralde kirolak taldeetako ordezkari debagoiendarrak. Guztiek azpimarratu zuten bukaeran ibilbidea oso gogorra eta arriskutsua zela: "Aramaion zirkuitu biguna egitea ezinezkoa da. Hasieratik daude aldapak, eta azken jaitsiera ere oso arriskutsua da, abiadura handia hartzen dugulako. Baina, egindako lanarekin gustura nago", esan zigun CDR taldeko Zigor Urainek. Arrasatearraren urteko helburua da probetan "ondo pasatzea eta lan txukuna egitea".

Ion Rivero bergararrak gazte mailakoekin parte hartu zuen, eta zazpigarren sailkatu zen. Bere mailako lehenak ihes egin zuenean, proba bukatzea izan zuen helburu. "Hasieran nahiko ondo ibili naiz, baina bukaerako metroetan nekea nabaritu dut, zapatuan Debako txirrindulari proban parte hartu nuen-eta", esan zigun Riverok. Aurten errepideko eta mendiko bizikletako probak uztartuko ditu. Hain zuzen ere, Iker Ezkibel eskoriatzarrak egingo duen gauza bera: "Orain arte mendiko bizikletarekin ibili naiz, eta nire helburua Espainiako koparako sailkatzea da. Baina aurten errepidean ere ibiliko naiz. Berria naiz, baina esperientzia hartzeko asmotan nabil".

## Sailkapena

| ELITE (5 ITZULI) | | |
|---|---|---|
| 1. | Ismael Esteban | 01:34:50 |
| 2. | Joseba Leon | 01:41:22 |
| 3. | Unai Yus | 01:42:22 |
| **EMAKUMEAK (3 ITZULI)** | | |
| 1. | Olatz Odriozola | 01:20:39 |
| 2. | Sheila Vegas | 02:12:09 |
| **23 URTEZ AZPIKOAK (5 ITZULI)** | | |
| 1. | Alvaro Olasolo | 01:49:58 |
| 2. | Erik Melon | 01:50:47 |
| 3. | Josu Lizoain | 02:10:23 |
| **MASTER 30 (5 ITZULI)** | | |
| 1. | Jose Luis Iñorbe | 01:44:39 |
| 2. | Ibon de Ortiz | 01:45:56 |
| 3. | Urko Munduate | 01:50:59 |
| **MASTER 40 (4 ITZULI)** | | |
| 1. | Santiago Pison | 01:30:00 |
| 2. | Juan Alonso | 01:31:08 |
| 3. | Jesus Angel Espada | 01:33:13 |
| **GAZTEAK (3 ITZULI)** | | |
| 1. | Carlos Gomez | 01:09:55 |
| 2. | Jonathan Lastra | 01:31:08 |
| 3. | Asier Juanbeltz | 01:11:23 |
| **KADETEAK (3 ITZULI)** | | |
| 1. | Matias Rekalde | 00:56:33 |
| 2. | Aitor Unzaga | 00:58:39 |
| 3. | Adrian Gartzia | 00:58:41 |

ITURRIA: TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA



Ismael Esteban irabazlea lehen aldapa igotzen. JULIO CALLEJA



137 ziklistak hartu zuen irteera Arriola auzotik. JULIO CALLEJA



Azibar Iraolagoiti (207), Basilio Ovejero (231) eta Borja Olano (18), sufritzen. J.C.

**Ismael Esteban** > Irabazlea

## "Nire erritmoa jarri dut hasieratik eta ez dut atzera begiratu"

**M.B.** > ARAMAIO
**Ismael Esteban kantabriarrak iazko garaipena berretsi zuen. Denboraldiko ziklista indartsuena dela erakutsi zuen.**



M.B.

**Zorionak! Gaurkoan ez duzu kontrariorik izan.**

Ez, egia da. Lehen aldapa hasi orduko nire erritmoa ipini dut, eta ez dut atzera begiratu. Aldapan gora oso ondo moldatzen naiz, eta banekien hasieratik tartea zabaldu ezkero, irabazteko aukerak izango nituela. Kontzentratuta eta bakarrik egin ditut probako kilometro guztiak.

**Lehen proba izanik, garaipena espero zenuen?**

Ez nekien fisikoki nola sentituko nintzen. Baina, nik uste baino hobeto nagoela erakutsi dut. Gainera, halako zirkuitu gogorrean irabaztea oso pozgarria da niretako, eta bigarrena aldia da.

KIROLA > FUTBOLA

# Bergarak Aloñari egindako bigarren gola i derbiko kakoa, eta puntuak etxean geratu

Josu Agirrezabalen jaurtiketak bote egin zuen Aloñako atezainaren aurrean

BERGARA
**3-1**
ALOÑA

**Bergara** > Unai, Josu (80. min. Iñurrieta), Unai, Andoni, Agirre, Beñat, Gari, Iñaki (58. min. Balza), Markel (90. min. Salegi), Altzola (83. min. Imanol), eta Oier.

**Aloña** > Julen, Endika (89. min. Juaristi), Jon, Roberto, Aritz (62. min. Gorka), Iñigo (62. min. Unai), Mikel, Zubia, Mikel, Astigarraga (62. min. Xabi Agirre) eta Iker.

**Bestelakoak** > Giro polita Agorrosinen. Oñatiko zale dezente egon zen derbia ikusten.



Bergarako jokalari Oier baloiarekin, Aloñako Astigarraga eta Bergarako Gari begira dituela.

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Derbiko 57. minutua. Bergarako jokalari Josu Agirrezabalek baloia astintzen du areaz kanpotik. Baloiak Aginagalde atezainaren aurrean bote egin eta ate barruan sartzen da. Bergarak 2, Aloña Mendik 1. Duda barik, zapatuan Agorrosinen jokatutako derbiko jokalari erabakigarriena. Bi taldeetako ordezkariak iritzi berekoak ziren partidu bukaeran. Agirrezabalek ere ez zuen espero. "Baloiak efektu arraroa egin du, eta bote egin duenean atezaina despistatu egin da. Ezustea izan da niretako, ez naizelako oso golegilea. Duda barik, jokaldi erabakigarria izan da", esan zigun bukaeran Josu Agirrezabalek.

Oñatiarrendako kolpe gogorra izan zen, mahoneroen bigarren golaren aurretik, 51. minutuan, markagailuan abantaila hartzeko aukera izan zuten-eta. Bergarako atzelariek baloia galdu zuten area ertzean. Iñigo Arregik erdiraketa egin zuen, baina Robertok ez zuen asmatu atezainaren aurrean bakar-bakarrik zegoenean.

**HIRU ALDAKETA**

Bergarak bigarren gola egin zuenean, hiru aldaketa egin zituen batera Aloñako entrenatzaileak. Zelai erdian jokalari freskoak sartu zituen, eta aurrean, Roberto Idigorasi laguntzeko Xabi Agirre ipini zuen. Baina ez zuen asmatu. Oñatiarrek ahalegin guztia egin zuten berdinketa lortzeko, baina aukera garbiak sortu barik. Entseatutako jokaldiekin ere saiatu ziren –79. minutuan area kanpotik estrategi jaurtiketa egin zuten–, baina azken metroetan galduta ibili ziren; besteak beste, Bergararen atzeko lerroak indartsu eta serio jokatu zuelako.

Hirugarren gola egin aurretik, derbia erabakitzeko aukera izan zuen Bergarak. Markelek jokaldi azkarra egin zuen ezkerraldetik, baina jaurtiketa kanpora bota zuen.

Arauzko 90. minutua bete zenean egin zuten bergararrek hirugarren gola. Aloñako atezaina baloiaren bila irten zen area ertzera, baina Balzak goitik gainditu zuen, eta bakar-bakarrik errematatu zuen.

Luzapeneko lau minutuetan ezer gutxi egin zuten bi taldeek.

**GOL PSIKOLOGIKOA**

Bolada onean heldu zen Aloña derbira, baina puntu barik itzuli zen. Lehen zatiko lehen minutuak nahiko eskasak izan ziren joko aldetik. Aloñak gola egiteko bi aukera izan zituen, baina bergararrak aurreratu ziren 20. minutuan Iñakik egindako golarekin.

Markagailuan atzetik joan arren, oñatiarrek menderatu zuten zelai erdia, eta lerroak aurreratu zituzten. Hala, behin eta berriz saiatu ondoren, berdinketa egin zuten. Bergarako atzeko lerroan ez ziren ados jarri baloia urruntzeko, eta Roberto Idigorasek berdinketa egin zuen 43. minutuan. Gol psikologikoa zirudien bi taldeek aldageletarako bidea hartu zutenean. Baina, bigarren zatian Josu Agirrezabalen golak apurtu zuen lehia.

**BI ASTEZ ATSEDENA**

Aste bukaerako jardunaldiaren ondoren, hurrengoa apirilaren 17an jokatuko dute. Bergarak berriro Agorrosinen jokatuko du

FUTBOLA > HIRUGARREN MAILA

## Durango 0-2 zegoen aurretik 15. minuturako eta UDAk ezer gutxi egin ahal izan zuen

Atzoko lehia galduta, asko gutxitu zaizkio Aretxabaletari maila mantentzeko aukerak; azken-hirugarren dago sailkapenean

ARETXABALETA
**1-2**
DURANGO

**M.B.** > ARETXABALETA

Etsita bukatu zuten aretxabaletarrek atzoko partidua. "Etorkizuna oso ilun ikusten dut. Puntuak behar ditugu, baina taldea ez dago sasoi onenean. Liga bukatzeko sei jardunaldi falta dira, baina ez dakit maila mantentzea lortuko dugun", esan zigun Igor Gordobil entrenatzaileak.

**INDAR BARIK**

UDAk puntuak behar ditu lehenbailehen sailkapeneko zulotik irteteko. Atzo beste aukera bat galdu zuen Durangoren kontra. Hasierako 15 minutuetan galduta ibili ziren, eta konturatu orduko bizkaitarrek bi gol egin zituzten. Durango 0-2 aurreratu zen 20. minutuan. Orduan bukatu zen partidua.

Bigarren zatian Aretxabaletak gol bat egin arren, ez zuten indarrik izan berdinketa lortzeko. Ahalegindu arren motel ibili ziren.

Puntuak lortzeko beste final bat jokatuko du etzi UDAk Basconiaren kontra Bilbon, 20:00etan.

**"GAUZA ASKO EGIN DITUGU GAIZKI"**

Txapelketa bukatzeko sei jardunaldiren faltan kontuak egiten hasteko momentua da. Bigarren B mailatik jaitsiko diren taldeen zain, ez dakite ziur zenbat taldek galduko duten maila. "18 puntu geratzen dira, baina karanbola asko egon behar dira gure alde".

Aretxabaletak denboraldia oso ondo hasi zuen. Puntu asko batu zituen, eta sailkapeneko gorengo tokietan egon zen. Baina... "nik uste dut gauza asko oso gaizki egin ditugula. Hasierako puntuak ez ditugu ondo kudeatu. Gainera, errefortzuak eskatu genituen, baina ez ziren heldu", esan digu Gordobilek.




UDAko jokalaria Durangoko atezainari baloia lapurtu guran. JULIO CALLEJA

# zan zen ziren



JULIO CALLEJA

jaitsiera postuetatik ihes egin nahian dabilen Beti Gazteren kontra. Aldiz, Aloñak Tolosa indartsuaren bisita jasoko du Azkoagainen.

Aloñak maila mantentzeko beharrezkoak diren 40 puntuak batu ditu dagoeneko, eta Bergarari garaipen bat falta zaio puntu kopuru horretara heltzeko. Ligako hurrengo jardunaldian lor dezake.

ESANAK

**"Bi taldeek ondo ezagutzen dugu elkar eta banekien lehia parekatua izango zela, baina emaitza larregiko zabala izan da Bergararen alde"**

**Pablo Diaz** > Aloñako entrenatzailea

**"Aurretik egindako lanak ez dauka zerikusirik derbietan. Aloña zetorren gu baino hobeto, baina gai izan gara partidua irabazteko, eta pozik gaude"**

**Josu Agirrezabal** > Bergarako joka.

**"Atsedenaren aurretik berdinketa lortuta, bigarren zatia menderatuko genuela uste genuen, baina euren bigarren golak min egin digu"**

**Unai Arregi** > Aloñako jokalaria

**"Lehen zatiko bigarren erdian arazoak izan ditugu baloia menderatzeko, Aloña zelai erdiaz jabetu da-eta"**

**Manu Diaz** > Bergarako entrena.


Iñigo Biain, Ande Mallabiabarrena eta Iban Lizarralde Araberri taldearen erasoa defendatzen. GOIENKARIA

**SASKIBALOIA** > MAILA AUTONOMIKOA

## Bukatzeko bost minutu falta zirenean apurtu zuen partidua Aloña Mendik

Asko sufritu zuten Xabi Igartuaren mutilek Araberriren kontra, baina sailkapeneko lehen tokian jarraitzen dute

ALOÑA MENDI
**79-66**
ARABERRI

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

"Igoera lortu gura badugu, halako partiduak irabazi egin beharko ditugu. Asko sufritu dugu, baina momentu egokian hiru eraso on eginez partidua apurtu dugu". Halaxe laburtu zigun Aloñako entrenatzaile Xabi Igartuak Araberriren kontrako lehia. Aloña Mendik hasieratik hartu zuen abantaila, baina bukatzeko bost minutu geratzen ziren arte ez zuen lehia erabakitzerik lortu.

**ERASOA ETA DEFENTSA HOBETU**

Lehen laurdenean sei puntuko abantaila izan zuten oñatiarrek (21-16), eta horixe mantendu zuten bigarren eta hirugarren laurdenetan (40-34 eta 55-49).

Aloñari kosta egin zitzaion Araberri taldea atzean ustea –lehen itzulian euren kantxan galdu egin zuten –, eta aspaldiko partez, puntu kopuru txikia lortu zuten.

Baina, une erabakigarria heldu zenean, taldeak kasta baduela erakutsi zuen, eta igoerako lehian jarraitzeko, ezinbestean, irabazi beharra zutela jabetu ziren.

Defentsa indartu zuten, eta erasoan hiru jokaldi jarraian eginda, tartea zabaldu zuten markagailuan. Azken bost minutuak lasaiago jokatu zituen Aloña Mendik.

**BUKATZEKO, ZAZPI**

Liga bukatzeko zazpi partidu geratzen dira, eta Aloñak sendo jarraitzen du lehen tokian. Lehia estua du Santurtzi eta Lizuan taldeekin –lehen biak igotzen dira bakarrik–.

Hurrengo lehia apirilaren 11n jokatuko du Construcciones Valpiren kontra.

**FUTBOLA** > OHOREZKO ERREGIONALA

## Penaltia huts egin ondoren, 90. minutuan irabazi zuten

MONDRA
**2-1**
EHU VASCONIA

**M.B.** > ARRASATE

Luzapeneko minutuak lasaiago jokatzeko aukera izan zuen Mondrak zapatuan. Bigarren zatiaren aurreneko minutuetan, eta markagailuan aurretik zirela, penalti jaurtiketa huts egin zuen Jon Muruak. Gainera, hurrengo jokaldian berdinketa egin zuen Vasconiak. Mojategin zeuden zaleek eta Mondrako ordezkariek gogor protestatu zuten berdinketaren gola legezkoa izatea. EHU Vasconiaren jokalariak eskuarekin egin zuen gola, baina epaileak ez zuen halakorik ikusi. Berdinketarekin Mondra jabetu zen baloiaz, eta ordura arte moduan, lehia menderatu zuen. Aurrera egin zuten, eta kostata, baina azken minutuan topatu zuten merezitako saria: Julen Herizek egin zuen garaipenaren gola. Abantailarekin, luzapeneko minutuetan gogor eutsi zuten atzeko lerroan. Zelai erdian ez zuten euren lekua galdu, eta puntu inportanteak lortu zituzten.

**35 PUNTUREKIN**

Ohorezko Erregional mailako gainerako taldeen moduan Mondrak atseden hartuko du ondorengo bi asteetan. Apirilaren 17an puntu bat gehiago duen Trintxerperen kontra jokatuko du. Arrasatearrek 35 puntu dituzte sailkapenean.

> SASKIBALOIA

### Jipoi ederra jaso zuen MUk Donostian Easoren kontra

Mondragon Unibertsitateak galdu egin zuen zapatuan Easo Pastas taldearen kontra. Donostiarrek jipoi ederra eman zioten Jabi Zurbanoren taldeari, 99-78.

Partidu zaila zen arrasatearrendako; izan ere, Easo jaitsiera faseko talderik indartsuenetarikoa da. Eta kantxan erakutsi zuen. Hasieratik menderatu zuen partidua. MUkoek ahalegindu arren ez zuten asmatu, eta sailkapeneko zuloan jarraitzen dute.

Orain, Aste Santuko oporrak dituzte arrasatearrek indarrak berritu eta denboraldiko txanpa erabakigarriari aurre egiteko. Hurrengo partidua Iturripe kiroldegian jokatuko dute apirilaren 11n San Ignacio Upna taldearen kontra.


JULIO CALLEJA

### Lauko finalerako txartela eskuratu dute

Eskoriatzako neskek egundoko partidua jokatu zuten zapatu arratsaldean, (78-34) Atletico San Sebastian taldearen kontra, eta lauko finalerako txartela ziurtatu zuten. Fernando Rasoren taldeak dituen ezaugarri guztiak erakutsi zituen, eta sailkapeneko bigarren tokian zergatik dagoen erakutsi zuen Intxaurtxuetan.

**MENDIA** > LASTERKETAK

# Aloñako igoerako izenematea zabalik, apirilaren 18ra arte

Interesatuek Rural Kutxan edo Gipuzkoako Kutxan sartu behar dute dirua: mendi federatuek 15 euro eta gainerakoek 20 euro

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Apirilaren 25ean jokatuko da Aloñako VI. igoera, eta dagoeneko zabalik dago izenematea; hain zuzen ere, apirilaren 18ra arte eman daiteke izena. Tarte horretatik kanpoko inskripzioak ez dituzte onartuko.

Parte-hartzaileek Rural Kutxako (30080198281368896427) edo Gipuzkoako Kutxako (30350170571700021937) kontuetan eman beharko dute izena. Mendi federatu txartela dutenek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek 20 euro.



Joseba Molinero oñatiarra iazko Aloñako igoeran. GOIENKARIA

Berrikuntza barik, igoera plazan hasi eta plazan bukatuko da. Plazatik kanposantura eta handik San Juan ermitara egingo dute. Han, Arregiraino hartuko dute, gero Lamiategira jaisteko. Urtiagaindik gora malda gogorrenak izango dituzte: Belar (922 metro) eta Aloñako gurutzea (1.288 metro). Tontorra eginda, korrikalariek Uribarritik egingo dute itzulerako bidea, Lezesarri auzotik igaroko dira, eta San Estebango ermitatik Oñatiko plazara jaitsiko dira.

> ESKUBALOIA

### Defentsa eskasa eginez Soraluze BKEk ezin izan zuen igoera fasea garaipenarekin hasi

Soraluze BKE eskubaloi taldeak porrotarekin hasi du igoera fasea. Hain zuzen ere, Egiaren kontra galdu zuten zapatuan 39-33. Defentsan egin zion ihes partiduak Josetxo Muniategiren taldeari. Donostiarrek abantaila hartu zuten berehala (8-4), eta lehia menderatu zuten. Bergararrak nahi eta ezin ibili ziren, eta bigarren zatian bi golera hurbildu baziren ere, ez zuten norgehiagoka irabazteko aukerarik izan. "Partidu txarra jokatu dugu, baina igoera fasea hasi besterik ez dugu egin, eta lasai gaude", esan zigun Muniategik.

> ESKUBALOIA

### Ezusteko garaipena lortu zuten Verkol Aloñako neskek eta maila mantentzea lortu dute

Ligako azken jardunaldian kontrario gogorra zuten Verkol Aloñako neskek, baina Kukullaga bizkaitarrak 28-25 menderatzeko gai izan ziren zapatuan. Hala, maila mantentzeko adina puntu batu dituztenez, hurrengo denboraldian Euskadiko txapelketa jokatuko dute berriro ere.

Zapatuko norgehiagoka bigarren zatian erabaki zen etxekoen alde. Lehena parekatua izan zen, baina atsedenaren ondoren partidua irabazteko moduko tartea zabaldu zuten oñatiarrek.

> DEIALDIA

### Antzuolako Arrola elkarteak batzordea aldatzeko bilera egingo du bihar Olaran etxean, 19:00etan

Antzuolako Arrola elkarteak deia egin du biharko: elkarteko zuzendaritza batzordea berritzeko bilera egingo dute Olaran etxean, 19:00etan. Urteko batzar orokorrean azken bi urteotan zuzendaritza batzordean egon direnek euren karguak utziko dituzte, eta erreleboa emango dute. Batzarra bukatu ondoren, Jose Ramon Agirre *Marron*-ek *Dolpo, biziaren muturrean* delako ikus-entzunezkoa eskainiko du. Hain zuzen ere, Nepalgo eskualde bateko bizimoduari buruzko irudiak erakutsiko ditu.

## Futbola

### 3. MAILA

Sailkapena

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. Amorebieta | 63 | 32 |
| 2. Real Sociedad B | 61 | 32 |
| 3. Portugalete | 56 | 32 |
| 4. Beasain | 53 | 32 |
| 5. Elgoibar | 53 | 32 |
| 6. Gernika | 52 | 32 |
| 7. Durango | 50 | 32 |
| 8. Amurrio | 48 | 32 |
| 9. Zamudio | 47 | 32 |
| 10. Basconia | 46 | 32 |
| 11. Arenas Getxo | 43 | 32 |
| 12. Zalla | 42 | 32 |
| 13. Lagun Onak | 39 | 32 |
| 14. Laudio | 38 | 32 |
| 15. Leioa | 38 | 32 |
| 16. Santurtzi | 37 | 31 |
| 17. Eibar B | 35 | 31 |
| 18. **Aretxabaleta** | 34 | 32 |
| 19. Retuerto Sport | 24 | 32 |
| 20. Salvatierra | 10 | 32 |

Emaitzak

| | |
|---|---|
| Amorebieta-Zalla | 4-1 |
| Real Socedad B-Laudio | 1-0 |
| Eibar-Santurtzi | ---- |
| Arenas-Lagun Onaki | 1-0 |
| Retuerto-Gernika | 0-1 |
| Leioa-Beasain | 0-4 |
| **Aretxabaleta**-Durango | 1-2 |
| Salvatierra-Basconia | 1-1 |
| Amurrio-Zamudio | 3-0 |
| Portugalete-Elgoibar | 1-0 |

Hurrengoa

Basconia-**Aretxabaleta**

### OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Sailkapena

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. Zarautz | 57 | 27 |
| 2. Pasaia | 57 | 27 |
| 3. Aurrera Ondarroa | 54 | 27 |
| 4. Tolosa | 45 | 27 |
| 5. Idiazabal | 41 | 27 |
| 6. Oiartzun | 41 | 26 |
| 7. **Aloña Mendi** | 40 | 27 |
| 8. **Bergara** | 35 | 27 |
| 9. Berio | 37 | 27 |
| 10. Trintxerpe | 35 | 27 |
| 11. **Mondra** | 32 | 26 |
| 12. Ordizia | 31 | 27 |
| 13. Hondarribia | 30 | 27 |
| 14. Hernani | 30 | 26 |
| 15. Real Union | 29 | 27 |
| 16. Beti Gazte | 25 | 27 |
| 17. EHU Vasconia | 24 | 27 |
| 18. Euskalduna | 23 | 27 |

Emaitzak

| | |
|---|---|
| **Bergara-Aloña Mendi** | 3-1 |
| Tolosa-Berio | 0-3 |
| Hondarribia-Ondarroa | 1-1 |
| Pasajes-Euskalduna | 1-0 |
| Real Union-Trintxerpe | 2-0 |
| **Mondra**-EHU Vasconia | 2-1 |
| Oiartzun-Idiazabal | 1-2 |
| Hernani-Zarautz | 0-3 |
| Beti Gazte-Ordizia | 3-0 |

Hurrengoak

Tolosa-**Bergara**
**Mondra**-Euskalduna
Hondarribia-**Aloña Mendi**

### BESTE KATEGORIAK

| | |
|---|---|
| **ERREGIONAL PREFERENTEA** | |
| Soraluze-Antzuola | 2-4 |
| Aretxabaleta-ELgoibar | 0-0 |
| **LEHEN ERREGIONALA, IGOERA** | |
| Bergara B-Amaroz | 4-1 |
| Intxaurre-Mondra | 3-2 |
| **LEHEN ERREGIONALA, KOPA** | |
| Danena-UDA Arizmendi | 6-0 |
| **GAZTEEN OHOREZKO MAILA, KOPA** | |
| Aloña Mendi-Orioko | 5-1 |
| Mondra-Ilintxa | 6-0 |
| **GAZTEAK IGOERA FASEA** | |
| Urnieta- Aretxabaleta Arizmendi | 2-0 |
| **GAZTEAK KOPA** | |
| Arizmendi-Bergara | 3-3 |
| **OHOREZKO KADETEAK IGOERA** | |
| Bergara-Lengokoak | 0-1 |
| Vasconia-UDA Arizmendi | 0-2 |
| **EMAKUMEZKOEN IGOERA FASEA** | |
| Allerru-Arizmendi | 1-1 |
| Lagun Onak-Mondra | 2-3 |
| **EMAKUMEZKOAK, KOPA** | |
| Anaitasuna-Bergara | 1-3 |
| Amaikak Bat-Aloña Mendi | 4-1 |

## Eskubaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **EUSKADIKO SENIORRAK, GIZON.** | |
| Ford Mugarri-Urola | 37-36 |
| **EUSKADIKO SENIORRAK, EMAKUM.** | |
| Verkol Aloña-Kukullaga | 28-25 |
| **EUSKADIKO GAZTE EMAKUMEAK** | |
| Aiala Zarautz-Verkol Aloña | 26-17 |
| **EUSKADIKO KADETET EMAKUMEAK** | |
| Aiala Zarautz-Verkol Aloña | 18-8 |
| **LEHEN TERRITORIAL MAILA, IGOERA** | |
| Egia-Soraluze | 39-33 |
| **BIGARREN TERRITORIALA** | |
| Arrasate-Iñausti | 21-17 |

## Saskibaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **LEHENENGO MAILA, JAITSIERA** | |
| Easo Pastas-MU | 99-78 |
| **SENIOR AUTONOMIKOA** | |
| Aloña Mendi-Araberri | 79-66 |
| **SENIOR EMAKUMEZKOAK** | |
| Eskoriatza-Krafft Atletico | 78-34 |
| **SENIOR GIZONEZKOAK** | |
| Soraluze-Kostkas | 80-54 |
| Aloña Mendi-Take Orbela | 49-63 |
| MU-Leihoak Zast | 95-68 |

Harmailatik

**Debagoieneko kirola GOITBn**

Astelehenero 22:15ean.



Goitb Goiena Telebista

*Ikustekoa!*

# Atera etekina txartelari!

Abantailaz betetako kluba!

Goiena kluba




## Abantailak

- Goienkaria astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak... eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

**Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu.**

## Deskontu bereziak

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

**BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)**
- Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- -%20 elikagai-intolerantzia proban.
- -%10 mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- -%10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

RENAULT AUTOBERRI

**ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA**
- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa 20 euro.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

IKER SUKALDEAK

**ARRASATE/OÑATI**
- Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

Barceló Bidaiak

**BERGARA/ARRASATE**
- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA) AVIA

**ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)**
**ARRASATE**
- **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
- **-%2** dendako produktuetan.

MONDRAGON LINGUA

**ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)**
- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan.
  Eskaintzaren epemuga: 2010/03/01

NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA

**ARETXABALETA**
- **-%15** zerbitzu guztietan.

CLINICA DENTAL BERGARA

**CLINICA DENTAL BERGARA**
**BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)**
- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

TXURI-URDIN Donostia

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.

AQUARIUM DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

**DONOSTIA**
- Bi erosi bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

LARRAÑAGA AUTOESKOLA

**BERGARA**
- **-%15** inskripzioa ordaintzean.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

**Enpresendako: Zure enpresa Goiena Klubean eskaini nahi baduzu jarri gurekin harremanetan.**

**Telefonoa: 943 25 05 05 | Posta-e: *kluba@goiena.com***

ARRASATE

# Mojategiko zelaia gaztetxoz beteta egon zen zapatuan

**BI TXANDA** Zapatuko saioan bi txanda egin zituzten; lehenengoa goizeko 10:00etan eta bigarrena 10:45ean

**GAZTETXO UGARI** Guztira sei taldek jokatu zuten zapatuan eta ume ugari elkartu zen Mojategiko zelaian

**GURASOAK HARMAILETAN** Umeak ez ezik, gurasoak ere joan ziren zelaira, gaztetxoei animuak emateko

NAROA ODRIOZOLA> ARRASATE

Futbola da gaztetxoen artean errege, eta agian askok etxera heltzean, futbolariak izan nahi dutela esango dute sarri. Izan ere, nork ez du inoiz amestu futbolari izatea? Baloi bat emanez gero, agerikoa da poz-pozik jarduten dutela gaztetxoak.

Oraingoan, Leintz Eskola Kirolekoei tokatu zitzaien baloiarekin aritzea; Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleak izan ziren protagonistak zapatuko saioan.

Gaztetxoek ohean egoteko denbora gehiago izan zuten, izan ere goizean goiz izan beharrean, 10:00etan izan zuten txanda. Horregatik, Mojategiko futbol zelaira iristean esna-esna zeuden guztiak.

Kirola egitea gustatzen zaie, eta gainera lagunen konpainiaz egiten badute, askoz hobeto. Goiza bi txandatan zatitu zuten; aurretik esan bezala, lehenengo txanda 10:00etan izan zen eta bigarrena 10:45ean. Aurrenekoak Arizmendi 4 eta Gazteluondo 3 taldeak izan ziren. Bigarren txandan, Herri Eskola, Arimazubi eta Gazteluondoko 4. taldeek jokatu zuten. Goizak aurrera egin ahala, gaztetxo gehiago animatu ziren Mojategiko zelaira.

**GURASOAK GAZTETXOAK ANIMATZEN**

Gaztetxoak ez ziren izan Mojategiko futbol zelaira joan ziren bakarrak, izan ere gurasoak ere bertan izan ziren. Horiek gaztetxoei animuak ematen eta jokaldiak txalotzen aritu ziren.



N.O.

**Arizmendi 4.** Zutik: Ane, Leire, Aitana, Olaia eta Irene. Makurtuta: Enara, Izaro, Amaia, Lide eta Leire E.



N.O.

**Arimazubi.** Zutik: Jaime, Ander, Asier, Beñat, Gorka, Markel eta Ekaitz. Makurtuta: Andoni, Andoni, Jon, Oxel, Aitor eta Unai.



N.O.

**Herri Eskola 4.** Zutik: Asier, Ibai, Oihan, Oier eta Iban Makurtuta: Liher, Julen, Mikel, Pello eta Andoni.



N.O.

**Gazteluondo 3.** Atzean: Amaia eta Ane (Arizmendi taldekoak). Aurrean: Lara, Helene, Eider, Ibai, Jokin eta Lide.

ZEIN FUTBOL TALDE DUZUE GUSTUKO?



**Enara, Amaia eta Leire**
Arizmendi 4

Enara, Amaia eta Leire taldekide batzuei itxaroten zeuden gurekin hitz egin zutenean. Esan zigutenez, Udakoak eta Realekoak dira. Gainera, futbola gogoko dute hirurek, baina Enarak atletismoa ere gogoko duela adierazi zigun.



**Andoni, Oxel eta Andoni**
Arimazubi 3

Partidua hasi aurretik Andonik, Oxelek eta Andonik taldekideekin lagunarteko partidua egiten ziharduten, eta orduan hitz egin genuen eurekin. Esan zigutenez futbola gogoko dute, baina ez dute jokalari eta talde gustukorik.



**Unai**
Herri Eskola

Partidua jokatzen hasi baino minutu batzuk lehenago egon ginen Unaiekin. Herri Eskola taldeko gaztetxoak esan zigunez, Mikel Labaka du jokalari gustukoena. Honez gain, adierazi zigunez, Realzalea da Unai.



**Martxel eta Julen**
Herri Eskola

Martxelekin eta Julenekin ere partidua hasi aurretik egon ginen. Iritzi eta gustu desberdinekoak dira bi mutilak; Martxelek Realzalea dela esan zigun, eta Julenek, ordea, Athletic taldearen jarraitzailea dela adierazi zigun.



**Pello eta Andoni**
Herri Eskola 4

Euren taldean lagun asko bildu zirenez txandaka aritu behar izan ziren. Horregatik, euren taldekideak jokatzen zeudenean hitz egin genuen eurekin. Esan zigutenez, Pello Realzalea da, baina Andoni Athletic zalea.



Patxi Usobiaga, egubakoitzean, MUko areto nagusian berbaldia hasi aurretik. XABIER URTZELAI

**Patxi Usobiaga** > Eskalatzailea

# "Berbaldi baten ondoren norbait motibatu dudala ikustea pozgarria da"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

**Munduko eskalada txapeldun Patxi Usobiaga (Eibar, 1980) Arrasaten izan zen egubakoitzean, Mondragon Unibertsitateak antolatutako *Ideia berriekin ekiten* topaketan esku hartzen. Usobiagak eskaladatik abiatuta jarduera profesionala eta enpresariala zelan bideratu duen azaldu zuen. Eta, motibazioa izan zen eibartarrak gehien erabili zuen berba.**

**Hasteko, zer moduz doa sorbalda hori? (Neguan ebakuntza egin zioten, Munduko Kopan min hartu eta gero)**

Ondo, ondo. Dagoeneko hamahiru aste eta bi egun igaro dira ebakuntza egin zidatenetik eta errekuperazio prozesua oso ondo doa. Medikuak aurreikusitakoa baino hiru aste lehenago jantzi ahal izan ditut katu oinak, eta seinale ona da hori.

**Hamahiru aste eta bi egun, erretzeari utzi dionak ere halaxe kontatzen ditu egunak.**

(Barre) Kontua da errehabilitazioaren eboluzioa astetik astera planteatu dugula: hiru aste egin nituen besoa geldi, bi aste besoa poliki-poliki mugitzen; bi astera errehabilitazioan nintzen, fisioterapeutekin, igeri egiten... halaxe joan dira asteak, eta denak ditut gogoan.

**MUko ikasleen aurrean egin duzun berbaldian horman bezain eroso ikusi zaitugu.**

Ez pentsa, ez nago ohituta, baina egia da gustatzen zaidala nire esperientzia beste batzuei azaltzea. Arrasatera etorri aurretik ibili naiz pentsatzen, ea zer kontatu behar nuen, baina azkenean ideia garrantzitsuena da jendeari erakustea gutako bakoitza gauza dela nahi duen hori lortzeko. Hori bai, helburua ondo neurtuta, eta jakinda ondoan dituen gauza on guztiak aprobetxatzeko dituela. Horrek berdin balio du eskaladarako, edo zapatak saldu nahi dituenarendako.

MOTIBAZIOA

**"Esperientziak erakutsi dit zerbait lortzeko ahalegina egiten duenak eskura izaten duela"**

LANA

**"Txapelketetara ez naiz irabaztera joaten, dena ematera baizik; horrek batzuetan garaipenera eramaten zaitu"**

IRAULTZA ESKALADAN

**"2003an erabaki genuen Patxi Usobiaga enpresa sortzea, kirol honetan aurrera egiteko ezinbestekoa zena"**

Nik uste dut nire berbaldietatik jendea motibatuta irteten dela, dabilen horretan gogor jarraitzeko gogoz, eta hori ikustea pozgarria da.

**AEBtako presidenteak ezagun egin zuen *Yes we can* leloa zure egin duzu, horrenbestez.**

Bai, baina lelo hori ez dit niri inork erakutsi, esperientziaren bitartez ikasi ahal izan dut hori, bizipen guztiek horretara eraman nautelako. Eta hain zuzen hori da jendeak askotan garbi ikusten ez duena, benetan ahalegintzen bada nahi duen hori lortzeko aukera handiak dituela.

**2009a urte biribila izan da: Munduko txapelduna eta kopan azpitxapelduna. Eta azken horri ere, kopan bigarren geratzeari ikuspuntu positiboa bilatu zenion.**

Bai, kopa irabazi izan banu dagoeneko hirugarren aldia izango litzatekeelako, eta akaso hor amaituko zen nire motibazioa. Beno, neure burua ezagututa seguru ez zela hala izango. Dena dela, kopan bigarren sailkatuta motibazioa berritu dut.

Eta bai, urte biribila izan da zentzu horretan, Munduko txapeldun izatearekin batera kopan gertatu zitzaidana arlo pertsonalean ikasgai oso garrantzitsua izan zelako. Urriaren 16an sorbaldan luxazioa izan ostean denboraldia amaitu zela esan zidan medikuak, baina nik ez nuen hori onartu nahi. Hilabete oso txarra pasa nuen, nire partetik ahal nuen guztia eginaz eta nire buruari erakutsi nion noraino naizen sufritzeko gauza, hain zuzen lehen komentatu duguna lortzeko, dena ematea.

**Txapelak ihes egin arren, pozik bueltatu ziren Kranj-etik (Eslovenia).**

Erabat hustu nintzelako, eta hori delako nire lelo nagusia. Txapelketa batera joaterakoan jendeak espero du irabaztera noala esatea. Hori da nahi dudana, noski, baina ez naiz joaten irabaztera, dena ematera, baizik. Eta batzuetan horrek garaipenera eramaten zaitu. Kranj-en eskuin besoa leher eginda neukan, eta nire fisioak [Ekin-eko Andoni Ormazabal] bakarrik zekien zelan nengoen. Bigarren sailkatu nintzen, baina pozik bueltatu nintzen handik, beteta, dena eman nuen sentsazioaz.

**Kirolaria, baina baita enpresaria ere. Hortik ere bideratu duzu berbaldia.**

Bai. Gaur egun Patxi Usobiaga enpresa bat da, eta 2003an hasi ginen horretan. Beste kirol batzuekin alderatuta, eskalada oso atzeratuta zegoen, babesleak, diru sarrerak... Kirol horrek beti izan du kutsu *hippy*e bat, furgonetetan, aire librean... Baina, eskaladan eboluzioa izan behar banu derrigor eman behar genituen aurrerapauso batzuk. Babesleek txipa aldatu behar izan zuten, medioetan ere geroago eta gehiago azaltzen ginen... hor iraultza handi samarra egon zen, eta beste eskalatzaile batzuk orain hasi dira horretaz jabetzen. Hala, nik haratago joan nahi dut, eta horretan nabil orain, zelan egin pentsatzen.

**Luzera begira jarri barik, epe motzera duzun erronka?**

Aste Santuetan oporretan noa lagunekin, eskalatzera. Deskonektatzeko asmoz noa, entrenamendu saioak, errehabilitazioa... Baina, orain momentuan ez dut helburu handirik, ez zelako erreala izango. Epe luzera baditut hainbat erronka, baina ondo errekuperatu behar naiz lehenengo.

**Lehengo Patxi Usobiagaren mailara iristea, esaterako.**

Edo hura hobetzea (barre).

**Errepideko bizikletan ibili zara neguan; kontuz, engantxatu egiten du.**

Bai, konturatu naiz! Gustura ibili naiz, hori da egia. Baina eskalatzen hasteko baimena eman didatenetik...



Gaztetxo bat ordenagailuaren aurrean. PEDROBEA

**TEKNOLOGIA BERRIAK** > 6 ETA 12 URTE ARTEKO UMEAK

# Teknologia berrien ezagutzak arriskuak uxatzen ditu

Gurasoek ere erabili eta ezagutu behar dituzte teknologia berriak eta hori seme-alabekin batera ikastea da onena, familian

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE

Teknologia berriak gazteekin eta duten ondorioekin lotuta egoten dira sarri, gehienetan ondorio arriskutsuak, gainera. Ondo erabilita, ordea, ondorio horiek bestelakoak direla ikusten da garbi. Eta horixe da, hain zuzen ere, Juan Carlos Alonso psikologoak joan den astean Arrasateko Kulturaten emandako hitzaldian azpimarratu gura izan zuena: "Teknologia berriak onak dira, erabileran daude onurak eta arriskuak".

**6 ETA 12 URTE ARTEKO UMEAK**

Telebista, ordenagailuak, mugikorrak eta bideojokoak. Lau elementu horiexek aipatu zituen Alonsok 6 eta 12 urte bitarteko umeek erabiltzen dituzten teknologia berrien barruan. "Telebista txikitatik ezagutzen dute baina beste elementuak ere ez zaie arrotzak izaten", dio Alonsok. "Garrantzitsua da gurasoek jakitea nola eta zertarako erabiltzen dituzten teknologia horiek umeek. Horretarako, aita-amek ere erabili eta ezagutu egin behar dituzte, adibidez, Interneta, sare sozialak eta messenger-a".

**EUREKIN BATERA**

Eta hori egiteko modurik onena seme-alabekin batera ikastea da, teknologia berriak familian erabiltzea. "Teknologia berrien erabilpenaz gain, guraso eta seme-alaben arteko harremana aberasteko ere balio du. Familian egoteko beste momentu bat da", jarraitu du Alonso psikologoak.

**HEZIKETA** > ZIGORRA

## Umeari zigorra jartzea ona den edo ez eztabaidatzen

Zigorra jaso beharrean umeak ulermena behar duela defendatzen du Cristobal psikiatrak

**O.E.** > ARRASATE

Umea zigortu behar da zerbait gaizki egiten duenean? Garaiz emandako belarrondokoa balekoa izan da?. Horrelako galderak izan dituzte eztabaidagai Arizmendi ikastolak antolatutako gurasoendako mintegian. Mintegi hori zuzentzen duen Rafael Cristobal psikiatrarendako, erantzuna "ez" da: "Zigorra ez da gidari ona. Mina baino ez du eragiten". "Haurra ez da hasten hiru urtera arte bestea kontuan hartzen, ordura arte mundua bere burua baino ez da. Horrek esan nahi du gainerakoak kontuan hartzeko ahalmena ia guztiz mugatua dela. Eta, gainera, ahalmen hori txikiagoa da zenbat eta emozioa biziago eta handiagoa izan", jarraitu du Cristobalek. Horrez gain, "gaizki egin dituen ekintzengatik haurrari errieta egitea edo zigortzea ez du birritan mintzea baino eragiten. Haurrak ulermena behar du, bere gaitasun eza eta ezintasunean ulertzea, eta informazioa jasotzea".



Mutiko bat haserre. ZEN



Neskatila bat jaten. SHUT UP AND KISS ME O O

**NERABEZAROA** > HILEROKOA

## Gizentasunak eta hilerokoa aurreratzea

Hilerokoak ez du traumatikoa izan behar eta normaltasunez hitz egin behar da

**O.E.** > ARRASATE

Elikadura eta gizentasuna hilerokoa lehen aldiz jaisteko adina txikiagoa izatearekin lotuta daude. Bestela esanda, normala da gaizki jan edo gizenak diren neskak adin normalean baino lehenago izatea lehen hilerokoa.

Alabari hilerokoa jaisteak pena eta beldurra ematen die hainbat gurasori. Pena, neskatila izatetik emakume izatera pasatzen direla pentsatzen dutelako, eta beldurra haurdun gelditzeko aukera dutelako ordutik aurrera. Agurtzane Hormaza psikologoaren iritziz hilerokoak ez du beldurrik eman behar eta garrantzitsua da aukera dagoen unean ematea horren berri alabari. "Hilerokoak ez du traumarik sortu behar gaztetxoarengan eta normaltasunez hitz egin behar dugu horren inguruan. Hilero dugu horretarako aukera, ez dugu itxaron behar alabari jaisten zaion momentua heldu arte", dio Hormazak.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> ARRASATE MUSIKAL**
Aste Santuko kontzertuan 30 musikarik interpretatutako musika, Kulturaten > 26



**> BITTER HONEY**
Zaleek dantzan hartu zuten Bitter Honeyren aurrenengo diskoaren aurkezpena > 27



**> FLOREN AOIZ**
Politikari nafarraren ibilbidea lehen pertsonan, *Hamarrekoa*ren galdetegian > 32

# Hogei atzamarrekin egindako makina bat doinu Gaztelekuan

**SAIO DIDAKTIKOA**
Euskal musika tresnen gaineko azalpenak eman zituzten

**'20 HATZ PROIEKT'**
Musika tradizionala XXI. mendera egokitu nahi izan dute



Ion Garmendia eta Iñaki Plaza musikariak Oñatiko Gaztelekuan, egubakoitzean. JULIO CALLEJA

ARRITXU BARRUSO > OÑATI

Iñaki Plaza eta Ion Garmendia musikariek euskal musika tresna tradizionalen inguruko lezio bikaina eman zuten bariku iluntzean Oñatiko Gaztelekuan; interesgarria, benetan. Makina bat bider entzun eta ikusi ditugun tresnak sakon ezagutzeko aukera eskaini zuten; ze doinu mota ateratzen duten, ze materialez eginda dauden, ze beste instrumenturekin laguntzen diren...

Txalaparta doinuek ireki zuten Plaza eta Garmendiaren saio didaktikoa eta ondoren etorri ziren txistua, danbolina, txirula, trikitia, panderoa eta alboka. Guztiek ezkutatzen zuten sekreturen bat; trikitia zabaldu eta barnealdean dituen lau akordeoi erraldoiak erakutsi zituen Iñaki Plazak. Panderoak ere bazuen bere sekretua; orain dela 160 urte inguru iritsi zen Euskal Herrira eta bere kriskitinek ateratzen duten zaratak eman zion izena trikitiari (*trikiti-trikiti*).

**BERRITU ETA UZTARTU**

Bertako instrumentuak ezagutu ostean doinuak nahasten hasteko momentua iritsi zen; horixe da, hain justu ere, bikote honen abilezia: musika tradizionala eta modernoa uztartzea edo beste era batera esanda, betiko musika tresnak eta eurak propio asmatutakoak uztartzea. Saioaren zati horretan hirugarren taldekide baten laguntza ere izan zuten. Kepa Calvok bateriarekin lagundu zien.

Bigarren zati hori ere txalapartarekin hasi zuten, baina kasu honetan plastikozko bidoi erraldoi batzuk ipini zituzten ondoan; txalapartaren egurra eta bidoien plastikoa konbinatuz doinu dotorea, dantzagarria eta trinkoa atera zen.

Beste herrialde batzuetako musika tresnak ere eroan zituzten Gaztelekura. Indiako tablak (tinbal antzerakoak) edo Trinidad eta Tobagon erabiltzen duten *Steel drum* izeneko bat.

Saioa berandu hasi zuten jende gutxi zegoelako, baina amaierarako talde polita elkartu zen Gaztelekuan; joan aurretik beste abesti bat eskatu zieten, baina ez zen nahikoa izan; berandu iritsitako ikusleak gogoarekin geratu ziren.

**'20 HATZ PROIEKT'**

Plaza eta Garmendia uztartzen, asmatzen eta berritzen abilak dira eta abilezia horretatik jaio da *20 Hatz Proiekt* izeneko proiektua; izen berarekin diskoa argitaratu zuten pasa den urtean. Bi mutil horiek hogei atzamar batzen dituzten arren, horiekin makina bat doinu erakargarri eta interesgarri lortzen dituzte.

**Iñaki Plaza** > Musikaria

## "Asmatzea eta gauza berriak probatzea gustatzen zaigu"

A.B. > OÑATI

**Sei urtez Kepa Junkerarekin ibili ostean bakarkako ibilbideari ekin diote Ion Garmendiak eta Iñaki Plazak. Gaztelekuan emandako saio didaktikoa hasi aurretik beraiekin hitz egiteko aukera izan genuen.**

**Atentzioa eman digu kontzertuez gain saio didaktikoak egiten dituzuela...**

*20 Hatz Proiekt* izeneko proiektuan murgilduta gabiltza azken bi urte hauetan. Proiektu honek hiru alor lantzen ditu. Alde batetik zuzeneko kontzertuak ematen ditugu pasa den urtean kaleratu genuen diskoa aurkezteko. Bestetik, musika ikastaroak ematen ditugu, eta hirugarren alorra saio didaktikoak dira. Euskal musika tresna tradizionalak ezagutzera ematea da gure helburua.



GOIENKARIA

**Uste duzu ezjakintasun handia dagoela zentzu horretan?**

Bai. Kasu askotan bai. Adibidez alboka jotzen dugunean askotan konturatzen gara jendeak ez dakiela zer den ezta nola jotzen den ere.

**Euskal musika tresna tradizionalez gain zeuek asmatutako instrumentuak ere jotzen dituzue...**

Bai. Asmatzea eta tramankulu desberdinekin gauza berriak probatzea gustatzen zaigu, saltseatzea. PVC materialez egindako hodi batzuekin, esaterako, *Tubiogh* izena ipini diogun instrumentu bat asmatu dugu; baxuaren papera egiten du.

**Beste herrialde batzuetako instrumentuak ere ekarri dituzue.**

Bai. Beste herrialde batzuetara bidaiatzen dugun bakoitzean ezagutzen dugu instrumentu berriren bat.

Abantailaz betetako kluba!
Goiena kluba
MARTXOKO IRABAZLEAK
Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro

DANBAKAKO HIRU DISKA
DANBAKAko hiri diska
IRABAZLEA
Karmele Korta Mendiguren
Arrasate

UMEENTZAKO LIBURUAK
Ikastolen Elkarteko umeentzako liburuak.
IRABAZLEA
Ines Elortza Iriarte
Bergara

SASKIBALOIRAKO SARRERAK
Lagun Aroren partidurako sarrerak.
IRABAZLEA
Roman Balanzategi Landa
Arrasate

GOIENAKO PENDRIVE-A
Goienako pendrive bat.
IRABAZLEA
Josune Lopez de Bergara
Arrasate

IRABAZLEA
SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATU DA
Amaia Ugarte Bolibar
Aramaio



Arrasateko musika eskolako piano ikaslea gurasoz betetako Kulturateko areto nagusian. JULIO CALLEJA

**KONTZERTUA** > ARRASATE MUSIKAL

# Ikasitakoa erakutsi zuten gazteek

**NON:** Arrasateko Kulturaten.
**EGUNA:** Egubakoitza, martxoaren 26a.
**ZENBAT JENDE:** Kulturate beteta.
**IRAUPENA:** Ordubete.

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Nork bere instrumentua aldean hartu, urduritasunak ahazten ahalegindu, eta Arrasate Musikalen diharduten 30 neska-mutiko txandaka igo ziren Kulturateko taula gainera egubakoitzean, Aste Santuko kontzertuan. Oboe, gitarra, tronpeta, flauta, piano, akordeoi...doinuak aireratu zituzten. Interpretatutako piezei dagokienez, klasikoak zein modernoak, kontzertu librea izan zelako. Horien artean filmetako musika banda batzuk taularatu zituzten, eta adibidez, kontzertuari amaiera emateko, Ken Zazpi taldearen *Ezer ez da betiko* pieza interpretatu zuten, taldean.

Seme-alabak taula gainean dauden bakoitzean gertatzen den moduan, gurasoek adi-adi jarraitu zuten ekitaldia, Kulturateko jarleku guztiak beteaz; batzuk zutik ere egon behar izan zuten.

**HURRENGO ARRASATE ETA OÑATIN**

Orain, beraz, oporretara joango dira Arrasate Musikaleko ikasleak pare bat asterako, baina badakite oporretatik bueltan makina bat lan dutela.

Lehen bi hitzorduak apirilaren 23 eta 24rako egin dituzte. Hain justu, apirilaren 23an (egubakoitza) Debagoieneko musika eskolek kontzertua egingo dute Arrasaten, Amaia Udal Antzokian, 18:30ean. Ibarreko eskolen zazpigarren kontzertua izango da hori. Justu Arrasaten hasi ziren halakoak egiten, eta herriz herri pasa ostean, atzera ere Arrasaten tokatzen da aurten.

Apirilaren 24an, berriz, Arrasate Musikaleko orkestraren txanda da. Zartzuelarekin jarduten duen orkestrak egingo du kontzertua, Goikobalu abesbatzaren laguntzarekin.

Eta beste adibide bat ipintzearren, maiatzaren 12an Oñati bisitatuko dute Arrasate Musikaleko piano-joleek, Debagoieneko piano-joleek kontzertua egiteko asmoa dutelako.

Arrasate Musikalek 500 ikasle pasa ditu 2010eko ikasturtean matrikulatuta.




JULIO CALLEJA

## Bilbora eta Artziniegara Eskoriatzako margo lehiaketako sariak

Herriko eta kanpoko artistek hartu zuten parte atzo goizean Eskoriatzako aire libreko IV. margo lehiaketan. Nagusien kategorian 17 lagun lehiatu ziren eta hiru onenak izan ziren: Julio Gomez Mena (Bilbo), Jon Idigoras (Ermua) eta Juan Berrospe (Donostia). 16 urtetik beherakoen kategorian 18k hartu zuten parte eta irabazleak izan ziren: Mikel Pinto (Artziniega), Irene Martin (Eskoriatza) eta Jokin Salido (Eskoriatza). Aurkeztutako lan denak ikusgai daude Ibarraundin apirilaren 16a arte.

**KONTZERTUA** > BITTER HONEY ETA COOL CIRCUS

# Ongietorri beroa estreinako diskoari

**NON:** 3 aretoa.
**EGUNA:** Egubakoitza, martxoak 26.
**ZENBAT JENDE:** 100 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Bi ordu eta erdi.



Mikel Otaegi gitarra-jotzailea eta Aitor Agirre abeslaria kontzertuaren momentu batean. JULIO CALLEJA

**A.B.** > ARRASATE

Barikukoa oso gau berezia izan zen Bitter Honey taldearendako. *Songs of love and destruction* izenburuarekin diskoa kaleratu berri dute eta barikuan egin zuten aurkezpen ofiziala etxean. 3 aretoan festa gogoa zegoen; jarraitzaileak diskoan entzundakoa zuzenean bizitzeko irrikan zeuden.

Bitter Honeykoek diskoak jasotzen dituen bederatzi abestiak jo zituzten, baina sorpresarik ere izan zen; bi kantu berri eskaini zituzten: *Power* eta *Cosmic War*. Horrez gain, eta ohikoa duten moduan, bertsioak ere egin zituzten, besteak beste, Motorhead eta Uria Heep taldeenak.

Jarraitzaileek harrera ona egin zioten Bitter Honeyren disko berriari; jendea gogoarekin zegoen, jakin-min handiarekin. Hasiera-hasieratik jarraitzaileak dantzan ipini zituzten arrasatearrek. Ordubete pasatxo egon ziren taula gainean, eta betiko moduan *Ride* abesti famatuarekin amaitu zuten; abesti indartsu horrekin kontzertuaren amaiera biribila ziurtatuta dago. Bitter Honeykoek beste behin ere erakutsi zuen maila handiko musikariak direla.

**COOL CIRCUS**

Barikuko kontzertua baina, Cool Circus taldeak ireki zuen. Estudioan lanean dabiltza disko berria grabatzen, baina barikuan aurrerapentxo bat ikusteko aukera izan zen. Abestiek hard-rock ukitu gehiago dute eta dezente landuagoak dira. Gau borobila izan zen: Bitter Honey-ren diskoaren aurkezpena eta Cool Circusen berriaren aurrerapentxoa.

**GANBARA**

## 3. munduko haurren aldeko kontzertua

Bakearen eta askatasunaren aldeko mezuak eman ziren Santa Anan

**A.B.** > OÑATI

Ganbara abesbatzako harrobiak kontzertu hunkigarria egin zuen zapatu iluntzean hirugarren munduko haurren eskubideen alde. "Guk Ganbaran umeekin egiten dugu lan, eta beste herrialde batzuetan bizi duten errealitatea aurkeztu nahi dugu", azaldu zuen Aitor Biain Ganbara Txikiko zuzendariak.

Gaztetxoak taldeka igo ziren taula gainera eta ikus-entzunezko muntaia batekin lagunduta eta kandelen argipean, askatasuna eta bakeari buruzko abestiak kantatu zituzten.

130 haur inguruk hartu zuen parte eta amaieran, gainera, guztiak elkarrekin entzuteko aukera egon zen. Bi abesti kantatu zituzten: *Ipharadisi* eta *Noten abestia*.

**OSASUNA** > ZAINTZAILEA EGOKI ZAINTZEAREN GARRANTZIA

# Zaintzailea naizenean, nork zaintzen nau ni? (II)

Aurreko astean esaten genuen senitartekoa zaintzeak hainbat betebehar eskatzen zituela, nabarmen eragin dezaketenak zaintzailearengan, fisikoki zein psikologikoki.

Batzuetan, buru belarri sartzen gara zaintze-lanean eta ahaztu egiten gara eguneroko nekea eta tentsioa arin dezaketen jarduerekin.

Ondoen sentitzen diren zaintzaileak dira bizimodu ohitura osasuntsuak dituztenak; izan ere, ohitura horiek egoera fisiko eta psikologiko egokiak bermatzen diete, euren burua eta familiarena ere ondo zaintzeko.

**NOLA ZAIN DEZAKEZU ZURE OSASUNA?**

1. Medikuarengana joan aldian-aldian: kontsultatu harekin non duzun min eta nola sentitzen zaren; azaldu zeure egoera pertsonala.

2. Jan ezazu osasuntsu: zure elikaduraren oinarri izan daitezela fruta, barazkia eta zerealak; horiek egunero jan, ahaztu barik. Ahal den neurrian, ez jan dultzeak, koipeak, hestebeteak eta opilak.

3. Lo nahiko egin: lo falta ohiko arazoa da zaintzaileen artean; horrek tentsio emozionala eta neke handiagoa eragiten du.

4. Jarduera fisikoa depresioari eta tentsio emozionalari aurre egiteko modu eraginkorra da. Ez da beharrezkoa gimnasioan izenik ematea; oinez ibiltzea edo bizikleta estatikoan aritzea aukera onak dira ariketa egiteko. Saiatu egunero 30 minutu hartzen horretarako.

5. Hartu denbora apur bat kanpora irteteko: isolamenduak zaintzailearen gainzama eta estresa handitzen du. Hartu zuretzako denbora, atsegin dituzun jarduerak egin eta zaletasunak mantendu, nahiz eta horretarako laguntza eskatu behar izan.

6. Antolatu zeure denbora: batzuetan egiten dugun guztia ere ez da derrigorrezkoa; jarduera plangintza bat egin eta ikasi "ez" esaten, beharrezko ikusiz gero.

7. Egin arnasketa eta erlaxazio ariketak: arnasa ondo hartzea osasun iturri da, gure gorputza eta gogoa indartzen du-eta. Lotara joan aurretik saiatu sakon hartzen arnasa hogei aldiz eta bost aldiz, berriz, egoerak gainezka egin dizula konturatzean; hobeto sentituko zara, ziur.

8. Adierazi sentimendu onak: batzuetan, eguneroko betebeharrek eta ardurek alde batera uzten dituzte sentimendu positiboak; laztana, besarkada edo esker ona bezalakoek eragin magikoak izan ditzakete. Egin proba.

9. Irtenbidea duen horregatik bakarrik arduratu; eta beti irtenbidea zure esku dagoenean, besteak ez du merezi.



Zaintzaile bat eta ezindu bat. ARIZMENDI

**ZAINTZAILEAREN ARAZO OHIKOENAK**

- Lo egiteko arazoak: goizaldean esnatzen zara, loak hartzeko arazoak dituzu, logura zara sarri-sarri edo pilulak hartu behar dituzu lo egiteko.
- Nekatuta sentitzen zara, itolarri handiaz eta energia barik.
- Isolatuta sentitzen zara.
- Kafeina eta alkoholdun edari gehiegi kontsumitzen duzu, tabako gehiegi erre eta pilulak errazegi hartu, hobeto sentitzeko.
- Arazo fisikoak dituzu; hala nola palpitazioak, digestio arazoak, dardara eskuetan....
- Erraz haserretzen zara, pazientzia txikiagoa duzu eta zure familia ez duzu hain ondo tratatzen.
- Detaile txikiei garrantzi handiegia ematen diezu.
- Umore aldaketak dituzu.
- Depresio edo urduritasun sentimenduak gainditzeko zailtasunak dituzu.

Horietako egoeraren bat sumatzen baduzu, beharbada, neurriak hartzeko unea iritsi zaizu. Kontuan har ezazu.

**Atal honetan...**
Astero-astero, Arizmendiren eskutik, intereseko gaiei buruzko aholkuak.

Arizmendi ikastola PRO 2.0 PROFESIONALAK
Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com edo www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.
- LOKALA SALDU/ALOKATU.
- GARAJEA SALDU/ALOKATU.
- MOTORRA SALDU/ALOKATU.

**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 20 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 21 € (+ BEZ).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 28 € (+ BEZ).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Sagasti auzoan 90 metro koadroko etxebizitza salgai edo errentan. Hiru logela, bi bainugela, bi balkoi, sukaldea, egongela eta despentsa. Igogailu eta garaje itxiarekin. Jantzita. Deitu 687 11 07 21 edo 617 00 37 30 telefono zenbakietara.

**Oñati.** 67 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Bi logela, komuna, jangela-egongela eta sukalde guztiz hornitua. 264.000 euro. 35 metro koadroko garaje eta trastelekua, aukerakoak, 66.000 euro. Deitu 659 72 06 64 telefonora.

**Oñati.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. Bi logela, sukaldea, komuna, egongela eta trastelekua argi patioan. Igogailuarekin. Jantzia. 240.000 euro. Deitu 652 70 12 49 telefonora.

**Oñati.** Lope Agirre kalean 110 metro koadroko duplexa salgai. Lau logela, egongela, sukaldea eta bi komun. Deitu 659 53 87 62 telefonora.

**Zumarraga.** 60 metro koadroko etxebizitza salgai. Bi logela, egongela handia, sukaldea eta komuna. Oso eguzkitsua. 162.300 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 638 33 03 01

### 103. ERRENTAN EMAN

**Oñati.** San Lorentzo auzoan hiru logela, egongela, bi bainugela, sukaldea eta bi balkoi dituen etxebizitza errentan ematen da. Berogailuz eta altzariz hornitua. 600 euro. Interesa duenak dei dezala 657 71 63 85 edo 943 00 58 54 telefono zenbakietara.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Bi logelako etxebizitza behar du errentan familia batek. Deitu 650 62 12 94 telefonora.

**Bergara.** Hiru logeladun etxebizitza errentan hartu nahi dugu urtebeterako. Deitu 629 33 26 34 telefonora.

**Bergaran.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Deitu 699 09 46 26 telefonora.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Arrasateko erdigunean. 619 78 63 41.

**Bergara** erdialdean bi gela ematen dira errentan. Bata txikia eta bestea handitxoagoa. 943 03 62 00 edo 649 63 23 24.

**Bergara.** Bi logelako apartamentuan, logela bat ematen dut errentan. 250 euro gastuak barne. 626 86 67 36.

**Bergara.** Erdigunean etxebizitza osatzeko pertsona baten bila gabiltza. 610 31 02 61.

**Oñati.** Logela ematen da errentan. 688 61 57 79.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** Ibargarai 37an 17 m²ko garajea salgai. 636 09 93 93 edo 626 81 71 28.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garaje bat hartuko nuke errentan Bolun. 658 73 35 96.

**Oñati.** Bidebarrieta kalean garaje bat hartuko nuke errentan. 600 02 32 19 edo 646 69 77 77.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**ARETXABALETA**

**Taberna-jatetxea errentan ematen da. Bezero fidelak.**

**943 77 21 24**
**696 02 42 10**

**BERGARA**

**Janari izoztuen denda eskualdatzen da azokan.**

**943 76 56 91**
**943 76 52 07**

## 4/ LANA

### 402. ESKAERAK

**35 urteko** mutil brasildarra, legezko dokumentuekin, gertu nagusiak zaintzeko. Geriatria ikastaroa egin dut eta esperientzia dut. Deitu 634 85 69 78 telefono zenbakira.

**Arrasate edo Bergara.** Bertako emakume arduratsua gertu sukaldari laguntzaile lan egiteko. Esperientziarekin. Menuetan, plater konbinatuetan eta pintxoetan. Deitu 637 18 07 23 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat. Deitu 618 00 08 28 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu orduka lan egiteko: nagusi edo umeak zaindu, plantxa eta abar. Deitu 699 54 17 27 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Emakumea gertu sukaldean lagundu, plantxa edo garbiketak egiteko, orduka. Deitu 647 16 40 49 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Zerbitzari edo garbiketa lanak egingo nituzke. Deitu 619 78 63 41 zenbakira.

**Arrasaten edo Bergaran** umeak zainduko nituzke; esperientzia daukat. Deitu 696 84 19 51 telefono zenbakira.

**Bergara eta Arrasate.** Emakume gaztea erizain laguntzaile lan egiteko gertu. 943 76 52 34 edo 677 09 72 68.

**Bergara.** Asteburuetan edozein lan egiteko gertu. Deitu 654 98 69 14 telefono zenbakira

**Bergara.** Emakumea gertu zaintza lanetarako, orduka lan egiteko. Esperientziaduna. Rakel. Deitu 663 65 76 85 telefono zenbakira.

**Bergara.** Neska gaztea umeak zaintzeko edo tabernan lan egiteko gertu. Deitu 600 24 58 27 telefono zenbakira.

**Bergara.** Neska gertu goizetan etxeko lanak egiteko. Deitu 656 73 64 51 telefono zenbakira.

**Bergara.** Neska gertu zaintza lanetarako, orduka lan egiteko. Esperientziaduna. Deitu 677 73 79 59 telefono zenbakira eta Irisengatik galdetu.

**Debagoiena.** 50 urteko neska eskoriatzarra, euskalduna, gertu nagusi zein umeak zaintzeko edo elkarteak-eta garbitzeko. Egun osorako prest. Deitu 607 68 58 76 telefonora.

**Debagoiena.** Aste bukaeretan lan egingo nuke Bergaran edo inguruan. Nagusiak zaintzen eta garbitasun lanak egiten. Deitu 699 09 46 26 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Debagoieneko esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko. Deitu 637 18 07 23 telefono zenbakira.

**Debagoiena** Tabernari edo zerbitzari eta elektrizista moduan lan egiteko gertu nago. Wilton. Deitu 638 54 96 72 telefono zenbakira .

**Debagoiena.** Debagoieneko neska lanerako prest. Etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. Yoana. Deitu 637 18 07 23 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbitasun lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko. Deitu 691 03 25 02 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu lan egiteko. 606 64 16 09.

**Debagoiena.** Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Esperientziaduna. Deitu 689 88 97 66 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea gertu sukaldari laguntzaile lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko. Orduka edo asteburuetan. Deitu 697 93 73 32 telefonora.

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, bertan bizi izateko edo kanpoko langile gisa. 689 88 97 66.

**Debagoiena.** Gaztea gertu eraikuntzan edo bestelako arlo batean lan egiteko. Deitu 696 48 42 50 zenbakira.

**Debagoiena.** Mutil gaztea mendian lan egin edo banatzaile lanak egiteko gertu. Deitu 606 78 35 94 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Mutil gaztea tabernan lan egiteko gertu. Deitu 689 93 58 41 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Mutila gertu margolaritzan, eraikuntzan edo tabernan lan egiteko. Deitu 697 88 35 62 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Neska euskalduna prest pertsona nagusiak zaintzeko asteburu zein jaiegunetan, egun osoan. Klinika laguntzaile tituluduna eta etxean bertan bizi izateko gertu. Itsaso. Deitu 943 74 82 09 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Sei urteko esperientzia dut nagusiak zaintzen eta etxean lo egiten edo egunean zehar lan egingo nuke. Bestelako lanetarako ere gertu nengoke. Deitu 638 89 98 60 telefono zenbakira.

**Lantxoak egiteko** gertu: elektrizitatea, margotzea, iturgintza, eta abar. Gorkagatik galdetu. Deitu 692 26 27 69 telefono zenbakira.

**Mutil gaztea** haraategian lan egiteko gertu. Zatikatze lanetan trebea. Gerardo. 610 91 33 40 edo 943 53 36 72.

**Mutil** brasildarra, 35 urtekoa, sukalde laguntzaile, zerbitzari, garbitzaile jarduteko gertu. Zerbitzari laguntzaile ikastaroa egin dut Gamarrako ostalaritza eskolan. Deitu 945 56 27 80 edo 634 85 69 78 telefono zenbakietara.

**Oñati.** Neska euskalduna etxebizitzak eta atarteak garbitzeko gertu. 635 70 07 92.

**Umeen zaintza** Umeak arrasaldez zaintzeko prest nago. Esperientzia handiko neska. Bergara edo Arrasaten..

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Kimika eskolak emango dizkidan norbait behar dut. Batxilergoko azken ikasturtea. 649 07 97 90.

### 502. EMAN

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Elkarrizketa lantzeko ere bai. Deitu 654 94 87 26 telefono zenbakira.

**Bergara.** Kimikan lizentziadun batek matematika, fisika eta kimikako eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Irakaskuntzan esperientzia. Deitu 648 06 79 85 telefonora.

**Eskola partikularrak.** Irakasle ikasketak dituen neska gertu Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloko ikasleei eskola partikularrak emateko. Deitu 655 71 39 27 telefono zenbakira.

**Oñati.** Esperientziadun irakasleak eskola partikularrak ematen ditu edo etxeko lanak egiten lagundu. 6-12 urte bitartean. Arratsalde edo gauetan deitu. 651 70 85 13.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Nissan Micra** automatikoa salgai. Gidatzen erraza. Ia berria. 45.000km. Deitu 649 19 64 04 telefono zenbakira.

**Opel Vectra** 1.800 16 V autoa salgai. Mendeurrenekoa. Ekipamendu osoa eta bola. 170.000 km. 2000koa. Gomendatzeko modukoa. 2.200 euro. Deitu 662 02 92 78 telefonora.

**Renault Megane** autoa salgai. 1900 Turbo Diesela. 100 ZP. 2000koa. Aire girotua, beira-igogailu elektrikoak, ixte-sistema zentralizatua, direkzio laguntzaile, ispilu automatikoak eta ABSa. 2.200 euro. Deiut 635 74 27 43 telefono zenbakira.

### 602. EROSI

**125 cc-ko motorra.** Erabiltzen ez duzun 125cc-ko motor hori erosiko nizuke. Deitu 647 31 64 41 telefono zenbakira.

## 7/ ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Txakurkumeak** ematen dira oparī. Setter eta Border Collie arteko gurutzaketa. Hiru hilabetekoak. Txertoak ipinita dauzkate. Debagoienean. Deitu 619 28 32 06 telefono zenbakira.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Akuarioa** salgai. 100 litrokoa. Osagarriekin. 50 euro. Deiut 616 22 49 64 telefonora.

**Angiozarren** 1.500 metro koadroko lursaila salgai. Eraikitzeko baimena duena. Bi bizitzako etxea egiteko. 180.000 euro. 647 51 52 54.

**Nikon D60.** Nikon D60 reflex digitala salgai. Ordezko bateria opari. Deitu 634 46 68 65 telefonora eta Manurengatik galdetu.

**Argazki kamera** ia berria salgai. Lumix FZ 18, bi bateria eta zorroa. Prezioa adosteko aukera. Deitu 615 70 77 10 telefono zenbakira.

**Armairua** salgai. 2 metroko zabalera. Ate japoniarrekin. 200 euro. Deitu 635 74 27 43 telefono zenbakira.

**Gitarra elektrikoa.** Academy markakoa. 60 eurotan. Gutxi erabilia. Deitu 626 94 16 42 telefono zenbakira.

**Karro denda.** Inesca Dakota modeloa. 2001ekoa, 5 lagunentzako, bi logela eta erdian pasillo bat dago. Hozkailua karroan eramateko prestaturik dago. Aramaio. Joserra. 685 72 05 90 edo 655 71 33 76.

**Koltxoia** salgai. 90 cm. Berria. Prezioa adostuko da. Deitu 670 08 12 16 telefonora.

**Kotxe-kapota eta aulkia.** Silver Cross etxeko kotxe-kapota bere poltsarekin eta umea handi egiten denerako Bambino World aulkia. Dena 400 euro, negoziagarri. Tamaragatik galdetu. Arrasate. 679 23 27 93.

**Kotxe-kapota.** Bebe Confort etxeko kotxe-kapota saltzen dut. 150 euro, negoziagarriak. Tamaragatik galdetu. Arrasate. 679 23 27 93.

**Landareak.** 6 urteko landareak. Tuya Plicata eta Espela. Deitu telefono zenbaki honetara: 667 91 55 90.

**Llantak eta gurpilak.** Elurretarako. 155 zabaleran, 13 erradioko M+S 78Q neurriko bi gurpil eta llantak. 50 euro. Aramaio. Joserra. Deitu 685 72 05 90 edo 655 71 33 76 telefono zenbakietara.

**Mahai luzagarria** salgai. 2 metrokoa. Egur eta kristalezkoa. 100 euro. Deitu telefono zenbaki honetara: 635 74 27 43.

**Ohea salgai.** XIX. mendeko ohe berritua salgai. Deitu 943 76 49 32 edo 650 01 01 83 telefono zenbakietara.

**Ordenagailua.** Windows XP SP3 sistema eragilea. 1GB RAM. Antibirusa jarrita eta Office 2003 osorik, legala. Deitu 616 48 98 14 edo 943 79 23 69 telefono zenbakietara.

**SP LTD** gorria salgai. Zorroarekin. Ia berria. 250 euro (negoziagarriak). Deitu telefono zenbaki honetara:675 12 80 43.

**Snow taula** salgai, US-40 markakoa. Taula eta fijazioak 85 euro. Taulak 1,65 metro neurtzen du eta egoera onean dago. Deitu telefono zenbaki honetara:671 92 06 49.

**Telebista.** 28 hazbetekoa. Bi urte dauzka. 150 euro. Deitu telefono zenbaki honetara:616 22 49 64.

**Urrea.** 24 kilateko urrea salgai. Deitu telefono zenbaki honetara:656 75 76 98.

### 802. EROSI

**Lursaila** erosiko nuke Bergaran edo inguruetan. Deitu 669 17 09 51 telefonora.

### 806. GALDU

**Autoko giltzak** galdu ditut Arrasaten. Honda autoarenak. Otsail hasieran. 653 01 76 67.

**Belarritakoa** galdu nuen Arrasateko alde zaharrean otsailaren 26an. Urre zuria. Balio sentimentala du. 619 45 42 87.

**Canon argazki kamera** galdu nuen zapatu gauean, martxoaren 20an, Arrasaten. Aurkitu duenak dei dezala 617 30 02 06 telefonora eta Aitorrengatik galdetu.

**Eraztunak Bergaran.** Kilometrotako buelta egiten hiru eraztun galdu ditut. Norbaitek aurkituz gero, mesedez deitu zenbaki honetara. Eskertuko da. 670 26 46 35.

**Kamera bila.** Inauteri-larunbatean, otsailaren 13an, argazki-kamera galdu genuen indiarrarena egiten. Zorro beltz baten barruan sartuta dago. Inork aurkitu badu, eskertuko genioke itzultzea. Mila esker. Deitu 629 44 02 18 zenbakira.

**Trabesiako eskiak** galdu nituen otsailaren 12an Arrasateko Aldai kalean. Nordica markakoak. 667 75 02 02

**Poltsa eta poltsikoko telefonoa** galdu ditut Bergarako Zabalotegi aretoan. 653 73 77 86.

### 807. AURKITU

**Galdutako giltzak.** Otsailaren 8an, astelehena, giltza batzuk aurkitu nituen Bergarako poligonoko aparkalekuan. Giltzak galdu dituenak dei dezala 630 62 15 97 zenbakira

**Irakurtzeko betaurrekoak** aurkitu nituen Arrasateko Santa Marina auzoan otsailaren 21ean. Zureak badira, deitu zenbaki honetara 943 79 96 71 eta Juanjorengatik galdetu.

---

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Ozaeta 105 m². Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Artekale 60 m². Berritua. 153.258 €.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Osintxu. 70 m². Igogailuarekin.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Bidekurutzeta 65 m². Berritua. Igogailuarekin.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, 196.200€.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,99 m² + ganbara, berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
- Basarte. 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m². Apartamentua. Oso ondo.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

## gazte zerbitzua

### BEKAK

**> Koldo Mitxelena.** Errenteriako Udalak antolatuta. Helburua da euskal kulturaren historia, artea, soziologia, antropologia, ekonomia, hizkuntzalaritza, literatura, etnologia, zuzenbidea eta, oro har, giza-zientziei buruzko ikerlanak sustatzea. Epea: ekainaren 30a.

### LANA

**> Uda-Txoko.** Lan eskaintzak batu ditugu. *www.gipuzkoagazteria.net/uda*

**> Udaltzainak.** Zarauzko Udala. Zarauzko Udalean udaltzainen lan-poltsa osatzeko oposizio-lehiaketa. Epea: apirilaren 6a.

**> Begiraleak.** Ekin Bi. Errenteriako udalekuetan lan egiteko begiraleak behar dira. Epea: apirilaren 14a.

**> Zuzendariak.** Lacunza Summer Camp. Lacunza Summer Camp-ek aisialdiko zuzendariak behar ditu bere udalekuetan lan egiteko. Epea: martxoaren 31.

### IKASTAROAK

**> Lankidetza eta Osasuna.** Euskal Herriko Unibertsitatea. Lankidetza eta Osasuna ikastaroa. Apirilaren 19tik 29ra.

### AISIALDIA

**> Uda-Txoko.** hainbat udalekuren gaineko informazioa batu dugu. *www.gipuzkoagazteria.net/uda*

**> Oporraldiak 2010.** Gipuzkoako Foru Aldundia. 14-17 urte bitartekoentzako. Zozketarako izenemate epea: 2010eko apirilaren 21etik 29ra. *www.gipuzkoa.net/oporraldi*

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

## astea GOITBn

### Astelehena, 29



**> Bergara-Aloña derbia eta mendiko bizikleta 22:15**

Bergara-Aloña derbia eta Aramaioko mendiko bizikleta lasterketa errepasatuko ditu Xabier Urtzelaik *Harmailatik*-en.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Onein.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Erloklip.
**15:45** Ikusmira.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Kalekantoi.
**18:15** Sakonduz.
**18:45** Ilunpean.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kiroleroak.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Gipuzkoakultura.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 30



**> Floren Aoiz, 'Ilunpean'-en elkarrizketatua 22:15**

Floren Aoizek Euskal Herriaren subiranotasunaren gaineko hitzaldia egin zuen Bergaran. *Ilunpean* saioan ere egon zen.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** On Ein.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Ikusten.
**16:20** Itsasoari begira.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Kurtulzulo.
**18:15** Gipuzkoakultura.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Harmailatik.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean.
**23:00** 28 Klip.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 31



**> Markel Olanok Oñatin esan zituenak 22:15**

Markel Olano ahaldun nagusia bailaran egon da asteon, Oñatin eta Elgetan. Oñatin esandakoak berriz entzuteko aukera dugu.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ikusmira.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Kiroleroak.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:35** Harmailatik.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Ilunpean.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Hitzaldia: Markel Olano.
**23:00** Kalekantoi.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Eguena, 1



**> Liburuak, kontzeptualismoa eta beste 22:15**

*Gipuzkoakultura* saioan, kontzeptualismoaren gaineko erreportajea, bi libururen gaineko hausnarketa eta Iparraldea Bertan.

**08:00** Barrebusa.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Itsasoari begira.
**12:30** Erreportajea
**13:00** Ur eta lur.
**13:30** On ein.
**14:15** Goiena Magazinea.
**15:15** Gipuzkoa Kultura.
**15:45** Marrazki bizidunak.
**18:15** Barrebusa.
**19:15** Ikusten.
**19:45** Euskaldunak hizketan.
**20:15** Kiroleroak.
**21:00** Goiena Magazinea.
**22:15** Gipuzkoa kultura.
**22:45** Kulturzulo.
**23:20** Itsasoari begira.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 2



**> 'Goiena magazinea'-ren errepasoa 14:30, 21:00**

Joan diren egunetan Arritxu Barrusok aurkezten duen *Goiena magazinea*-ren eduki batzuk laburbilduta ikusteko aukera.

**08:00** Barrebusa.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** Bergarako lau t'erdiko pilota txapelketa.
**13:30** Barrebusa.
**14:30** Goiena Magazinea.
**15:15** Gipuzkoa Kultura.
**15:45** Marrazki bizidunak.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Euskaldunak hizketan.
**19:15** Ikusten.
**19:45** Ilunpean.
**20:15** Kiroleroak.
**21:00** Goiena Magazinea.
**22:00** Itsasoari begira.
**22:30** Euskaldunak hizketan.
**23:00** Ilunpean.
**23:30** Erloklip.
**00:00** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

FM 107.7

**> Ismael Serranoren kontzerturako sarrerak eskuratzeko aukera dago**

Herri Saharauiaren Giza Eskubideen Aldeko Astean, Ismael Serrano kantautorearen kontzertua antolatu dute Amaia antzokian, eta Arrasate Irratiak horretarako sarrerak zozketatuko ditu entzuleen artean. Parte hartzeko: *irratia@goiena.com* edo 943 25 05 05. Apirilaren 16ra arte dago parte hartzeko aukera.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## telealbisteak

GOITB

# GOITB laster ikusiko da digitalean ibar osoan

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Bergaran telebista digitalera jauzia egin zuen Goiena Telebistak joan den astelehenean, eta Oñatin egubakoitzean egin zuen. Orain, Elgeta, Antzuola eta Aramaioren txanda izango da. Herri horiek Lurreko Telebista Digitalaren dekretuak GOITBrendako aipatzen dituen demarkaziotik kanpo gelditzen dira, baina herri horietako udalek eskatu dute barruti edo demarkazio horri dagokion tokiko telebista seinalea jasotzea. Itelazpik ere baimena eman dio Goienari bere dorreetan ipintzeko euren ekipo digital berriak. Hortaz, GOITB laster ikusi ahalko da formatu digitalean bailara osoan.

GOITB

# Egunero albistegia izango da Pazkoetan

L.K. > ARRASATE

Pazko astean, Debagoieneko gaurkotasunaren berri ematen jarraituko du Goiena Telebistak. Bailarako eguneroko tasunak ematen dituen albisteak jasoko ditu Goiena Telebistako lantaldeak, eta *Berriak* saioan ikusteko aukera izango da. Julen Iriondo kazetariak aurkeztuko du saioa eta egunero bi emanaldi izango ditu, eguerdian eta arratsaldean.

*Goiena magazinea* saioak, bestalde, oporrak hartuko ditu, eta Pazko astearen ondoren saio horrekin hitzordua izango dute berriro ikus-entzuleek: apirilaren 12an, astelehena, ohi bezala, 19:45ean.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

**GAIA erakusketa iraunkor berria**
**Energia** eta **Natura** dira erakusketa honetako ardatz nagusiak.
Bisita gidatuak asteburutan:
13:15 eusk. eta 17:45 gazt.



**PLANETARIUM DIGITALA**
Erresoluzio handiko irudi ikusgarriak kupula osoan proiektatuta.
Asteburu eta jai-egunetako saioak:
12:00-13:00-15:30-17:00-18:00.

**Eboluzioa:** Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu
**Biziaren jatorria:** Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa
**Itsua izar begiekin:** Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat
**Kartoizko suziriaren sekretua:** Haurrei zuzendutako saioa. Eguzki sistemako planetak
**Donostiatik zerura begira:** Zuzeneko saioa, gaur ikus dezakegun zerua ezagutzeko
**Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia
**Kaluoka'hina, uharri sorgindua:** Haurrei zuzendutako saioa. Arrain koloretsuen abenturak.

**ERRUSIAR MENDIA SIMULAGAILUA**
Asteburu eta jai egunetan irekita
11:30-14:30 eta 15:30-19:00



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
*www.miramon.org*
**Aste Santuko ordutegia**
Aste Santuan egunero irekita, 11:00etatik 19:00tara

kutxa | www.kutxasocial.net

## zorion agurrak



ARRASATE
**Garazi Vitoria**
Martxoaren 22an, 22 urte. Zorionak, Garazi! Disfrutau gaurko egun berezixen! 2 ahatiak, 2 ahatien egunien! Bada garaia zure soinekua estreinatzeko! 22 patxo erraldoi! Aizu eta Joxema.



ARRASATE
**Jose Ramon Ercilla**
Martxoaren 22an Zorionak aitatxo! Bihotz bihotzez hodei,aimar eta danelen partez.muxu handi handia.maite zaitugu!



OÑATI
**Maitane Igartua Murguzur**
Martxoaren 23an, 17 urte. Zorionak eta urte askotarako zure familiaren partez. ondo pasau eguna!



ARETXABALETA
**Gorka Zumalde Etxabe**
Martxoaren 24an, 9 urte. Zorionak, futbolista, familiakoen partetik.



ANGIOZAR
**Maialen Fernandez de Leceta Eguren**
Martxoaren 25ean, 7 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxekoen partetik. *Guapisima*!



ARRASATE
**Hodei Ercilla**
Martxoaren 26an, 5 urte. Zorionak, piratatxo! Aita, ama, Aimar eta Danelen partetik muxu erraldoia eta egun zoriontsua opa dizugu. Maite zaitugu!



BERGARA
**Peio Galfarsoro Arregi**
Martxoaren 26an, 6 urte. Zorionak, mutikote, etxekoen eta bereziki Maider eta Olatzen partetik. Ondo pasatu eta muxu handi bat!



OÑATI
**Aitor Freire Bastardo**
Martxoaren 27an, 6 urte. Zorionak, potxolo! Muxu bat etxekoen partetik.



OÑATI
**Oier Guerreiro**
Martxoaren 27an, 6 urte. Zorionak, Oier, potxolo! Oso ondo pasatuko dugu larunbatian zure eguna ospatzen. Patxo pilo bat etxekuen partetik!



OÑATI
**Mikel Aranburu**
Martxoaren 27an, 10 urte. Bi zifretara iritsi zara! Zorionak etxeko guztien partetik eta ondo pasatu! Mila muxu!



ARRASATE
**Bitxori Belaustegi**
Martxoaren 27an, urtebetetzea. Zorionak, amama, etxeko guztien partetik, eta bereziki Jon, Julen, Maider, Manex eta Iratiren partetik. Ondo pasatu eta muxu handi-handi bat.



OÑATI
**Aimar Elorza San Miguel**
Martxoaren 28an, 2 urte. Zorionak! Muxu bat etxekoen partetik.



ELGETA
**Nora Etxabe Arriola**
Martxoaren 28an, 3 urte. Aitatxo, amatxo eta Gloriaren etxekoen partetik zorionak eta muxu handi bat! Neska handia zara hiru urterekin!



OÑATI
**Argider Isasti**
Martxoaren 29an, 33 urte. Zorionak, aittatxo! 33 tirakada belarrittatik eta muxu asko amatxoren eta nere partetik. Oporretan gauzela ospatuko du zure urtebetetzia tarta goxo batekin. Izar.



ARETXABALETA
**Oxel Etxabe Elorza**
Martxoaren 29an, 3 urte. Zorionak, *Pikerito*. Amatxo, aitatxo, Gari eta familiako gainerako guztien partetik.



BERGARA
**Eider Olabarria Lazkano**
Martxoaren 29an, 4 urte. Zorionak etxeko denen partetik eta bereziki zure ahizpa Iratik.



URRETXU
**Markel Zabaleta Artolazabal**
Martxoaren 29an, 2 urte. Zorionak eta patxo handi-handi bat tio, tia, Edurne eta bereziki Itziarren partetik.



ARETXABALETA
**Ager Lanzos**
Martxoaren 26an, 6 urte. Zorionak, *guapo*! Oso ondo ospatu zure urtebetetze eguna eta muxu haundi bat etxeko guztien partetik, bereziki Danelen partetik. Aupa Erreala!



ARRASATE
**Pitxi**
Martxoaren 29an, 40 urte. Zorionak, tio Pitxi! Nola esaten da euskeraz,berrogeiton? Ederto pasatu eguna eta marrubizko 40 muxu potolo etxekoen eta bereziki loba Beñat eta Marenen partetik. Patxitos.



ANTZUOLA
**Nora Lasa Oncala**
Martxoaren 30ean, 4 urte. Zorionak, polita! Amatxo eta aitatxoren partetik, muxu mila!



ARRASATE
**Maike eta Lia Axpe**
Martxoaren 31n, 4 urte. Zorionak, bikote. Ondo-ondo pasatu urtebetetze egune eta muxu handi-handi bana etxeko guztien eta, bereziki, ahizpa Nahiaren eta lagun Julene eta Iratiren partetik.



ARETXABALETA
**Izeia Garai Lazkano**
Martxoaren 31n, 3 urte. Zorinak, poxpolin! Egun eta ospakizun politta izan dedila zure 3. urtebetezean. Txokolate eta marrubizko muxu potolo bat etxeko txikienari! Etxeko guztien partetik!



ARRASATE
**Naroa Balerdi Berezibar**
Martxoaren 31n, 4 urte. Noiz egingo dugu Untxiaren dantza danok? Zorionak, Pablo, Aner, Malen, Martin, June eta Noraren partetik.



OÑATI
**Iñaxio Inza**
Martxoaren 31n, 61 urte. Zorionak eta urte askotarako, aitta! Bazkaixa noizko? Jarri labia martxan, geuk gosia eruangu eta. Etxekuon partetik eta batez be Uxue eta Elaiaren partetik, mila zorion.



BERGARA
**Olatz Arregi Eguren**
Martxoaren 31n, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat familia osoaren eta, bereziki, Lirain, Peio eta Maiderren partetik.



BERGARA
**Haitz Alberdi Lasagabaster**
Apirilaren 1ean, urtebete. Zorionak, Haitz. Muxu mordo bat, etxekuen, Plaentxikuen eta Orokuen partetik.



BERGARA
**Markel Laskurain Arreseigor**
Apirilaren 1ean, 9 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxekoen partetik, bereziki Aneren partetik!



ARRASATE
**Anje Rozas Lizarralde**
Apirilaren 2an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! 8 muxu potolo eta belarrikada fuerte zure lehengusu eta anaien partetik; Mattin, Peru, Xabier, Maialen, Naia, Julen eta June



ARRASATE
**June Villar Lumbreras**
Apirilaren 2an, 9 urte. Zorionak June! Ondo igaro zure urtebetzean. Patxo pila bat etxekoen partetik.



ARRASATE
**Lide Villar Lumbreras**
Apirilaren 3an, 6 urte. Zorionak Lide! Ondo igaro zure urtebetetzean. Patxo pila bat etxekoen partetik.



BERGARA
**Naia Unamuno Martinez**
Apirilaren 4an, 2 urte. Zorionak eta patxo handi bat, sorgintxo! Etxeko guztien partetik eta berezi Marenen partetik, zorionak!



ARRASATE
**Ibai Alberdi Segovia**
Apirilaren 5ean, urtebete. Zorionak, sorgintxo, familia guztiaren partetik.



ESKORIATZA
**Martin Berezibar Arevalo**
Apirilaren 5ean, 5 urte. Zorionak eta ondo pasatu Port Aventuran! Pablo, Malen, Naroa, Nora eta Maialenen partetik.



OÑATI
**Itziar Barrena Jausoro**
Apirilaren 7an, 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko denon partetik. Oso ondo pasatu zure eguna.



BERGARA
**Naia Berraondo Mateos**
Apirilaren 8an, 3 urte. Zorionak aitatxo eta amatxoren partetik. Patxo potolo-potolo bat. Asko maite zaitugu, guapisima!



BERGARA
**Elene Leceta**
Apirilaren 8an, 5 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxekoen partetik!



OÑATI
**Maialen Anduaga Baladron**
Apirilaren 9an, 7 urte. Zorionak eta ondo pasatu zure egunian. Aita, ama eta bereziki Amaian partetik.

## ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Asteleheneko Goienkariaren bidez! Hiru bide dituzu zorion agurrak jartzeko:

**Internet bidez**
Goiena.net atariko Zorion agurren tartean sartu. Aukeratu zein herritan gehitu nahi duzun eta eskatzen diren datuak bete.

**e-postaz**
Mezu bat bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera. Honako datuak emanez: Izen abizenak, herria, urteak noiz eta zenbat betetzen dituen, eta nahi duzun mezua.

**Edo etor zaitez Goienako ordezkaritza batera.**

Egubakoitz 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## asteburuko albuma

**Gerrako gehiegikeriak agerian.** Espainiako gerran hil, hilobiratu eta desagertarazi zituztenen "duintasuna berreskuratu" guran dabiltza Aranzadi elkartekoak. Hamar urte daramatzate frankistek egindako hilobiak aurkitu eta gorpuak berreskuratzen. Eta lan horren emaitzaren zati bat erakusgai ipini dute Bergarako Aroztegi aretoan, argazki erakusketa modura. Egubakoitzean inauguratu zuten. Lau ataletan banatuta, hilobi baten gaineko informazioa lortu, hildakoaren familiakoekin harremanetan jarri, indusketa lanak egin, hobitik ateratzeko prozesua eta familiei gorpuen hondarrak entregatu arteko prozesua erakutsi dute. Erakusketa apirilaren 18ra arte dago zabalik. Bestalde, apirilaren 14an, Lourdes Herrastik, Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak, hitzaldia egingo du, 19:00etan, Aroztegin.



Lourdes Herrasti esplikazioak ematen; fondoan Agurne Barruso alkatea. UBANE MADERA



Aurreskuarekin inauguratu zuten jatetxe berria. HORREGATIK KOMUNIKAZIOA

**Inaugurazio ekitaldia.** Gureak-ek Garaia Berrikuntza Gunean duen jatetxe-kafetegia inauguratu zuten barikuan. Bertan izan ziren Gureak-eko zuzendari nagusi Iñaki Alkorta eta Andoni Gartzia Garaia Berrikuntza Guneko zuzendaria. Esther Arregik aurreskua dantzatu zuen eta zinta mozketa egin zuten gero.



Doke txapelketako irabazleak sariak eskuan dituztela. JULIO CALLEJA

**Doke txapelketa.** Arrasateko gaztetxoak ederki ibili ziren domeka goizean dokean jolasten; SUDC elkarteak antolatuta Doke txapelketaren 26. edizioa jokatu zuten. Lau bikotek hartu zuten parte txapelketan. Aitor Madinabeitia eta Xabier Petrañas izan ziren irabazleak; bigarren postuan, Ane Sajeras eta Maria Sajeras geratu ziren; hirugarren, Josu Abanzabalegi eta David Sajeras; eta laugarren, Ibai Gonzalez eta Oihan Uribarren.




Txomin Gallastegi, Mikel Altuna, Sabin Arantzabal eta Andoni Aizpurua. ARIZMENDI

**BHKlip bideoen lehiaketa.** Aurten hamabost lan aurkeztu dira Arizmendi Ikastolak antolatutako BHKlip lehiaketara; sari banaketa ekitaldia eguenean egin zuten Arimazubi gunean. *BH-mank* lanak ikuslearen saria lortu zuen eta epaimahaiarena *Pokerface* bideoak irabazi zuen.

## jaiotakoak



**Ines Alvarez Pagaldai**
Eskoriatza > 3,750 kilo. Martxoaren 19an. Gurasoak: Leire (Eskoriatza) eta Juan Antonio (Eskoriatza). Argazkian, Ines jaioberria, Aitona Antoniorekin.



**Nora Sodupe Izquierdo**
Bergara > 3,960 kilo. Martxoaren 22an. Gurasoak: Ane (Bergara) eta Josu (Bergara). Argazkian, Nora jaioberria aitona Luis Marirekin.



**Oxel Urteaga Larrea**
Aretxabaleta > 3,830 kilo. Martxoaren 20an. Gurasoak: Done (Aretxabaleta) eta Jokin (Aretxabaleta). Argazkian, Oxel jaioberria, lotan.



**Galder Quiros Mateos**
Arrasate > 2,800 kilo. Martxoaren 21ean. Gurasoak: Sonia (Arrasate) eta Sergio (Arrasate). Argazkian, Galder jaioberria, gurasoekin.



**Irati Gomez Arenaza**
Aretxabaleta > 3,960 kilo. Martxoaren 25ean. Gurasoak: Uritz (Eskoriatza) eta Iñaki (Bilbo). Argazkian, Irati jaioberria, amamarekin.



**Nagore Ugarte Kortabarria**
Oñati > 3,970 kilo. Martxoaren 24an. Gurasoak: Maixabel (Oñati) eta Mikel (Oñati). Argazkian, Nagore jaioberria, aitarekin.



**Ane eta Irati Alonso Urbano**
Arrasate > Anek 2,700 kilo eta Iratik 2,740 kilo. Martxoaren 22an. Gurasoak: Angela (Arrasate) eta Manuel (Arrasate). Argazkian, lotan.



**Jokin Lopez de Arkaute Carrasco**
Arrasate > 3,910 kilo. Martxoaren 15ean. Gurasoak: Mariau (Arrasate) eta Mikel (Arrasate). Argazkian, Jokin jaioberria, arreba Sararekin.

BABESLEA


EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com


**Floren Aoiz** > Idazlea

# "Aktibismo soziala gauza naturala zen lehen"

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

**Nafarroako memoria historikoaren ahotsetako bat bilakatu da azken urteotan Aoiz (Tafalla, 1966). Politikako lehen lerroa lagata, historia liburu eta saiakeretan aurkituko dugu orain haren izena. Gurean ere, azken asteotan Antzuola eta Bergaran izan dugu hizlari.**

**Goiztiar horietakoa zaitugu. 14 urterekin gazte mugimenduetan eta 21ekin Nafarroako Parlamentura joan zinen.**

Garai hartan guk ez genuen politika gaur egun ikusten den moduan ikusten. Tafallan gazte mugimendu handia zegoen euskararen inguruan, ekologismo taldeak... Aktibismo soziala oso gauza naturala zen, eta hori aldatu egin da.

**Parlamentuan hasi zinenean *mukitsu* moduan hartu zintuztela zenion.**

Oso gaztea nintzen, adin mahaian nengoen Parlamentua osatzeko saioan. Gerora gazteagoak ere egon dira, baina orduan ez zen hain normala. Hala ere, aitortu behar dut niri inoiz ez zaizkidala instituzioak askorik gustatu. Ez da nire profila eta ordezkapen politikoak asko desgastatzen du pertsona. Politika egiteko beste era batzuk gustatzen zaizkit niri.

**Lehen lerroan eta Herri Batasunaren bozeramaile zineneko garaiak, zelan? Jomugan zeunden hedabideetan.**

Zama ederra kendu nuen gainetik amaitutakoan. Ez da beti gozoa ala erraza izaten talde baten izenean hitz egitea, zure iritziak alde batera utzita. Niretzat ohorea izan zen, baina nik askoz ere lasaiago hitz egiten dut nire izenean eta sarri, arinkeriaz ere bai orain. Gehiegi pentsatu gabe ere esan ditzakezu gauzak, eta lasaigarria da hori.

**Euskadi Irratitik ere kendu zituzten zure iritziak?**

Bai? Niri esan ere ez zidaten egin. E-posta pare bat bidali nituen azalpenak eskatzeko, baina erantzunik jaso ez. Garbiketaren parte izan da. Beste hedabide batzuetan jarraitzen dut.

**Eta espetxeko sasoia zelan gogoratzen duzu?**

Behintzat, Nafarroan nengoen. Politikan, lehen mailan, estresaturik egotetik orduekin zer egin ez nekien egoerara pasatu nintzen, kolpe baten. Asko irakurri nuen, eta lasaitu baita ere. Oso oroitzapen txarrak ditut garai hartaz, ze kolpe ikaragarria izan zen-eta guretzat.

SOSLAIA

## Ilusioa eta kezka

Garai politiko berria etorri ala ez, ezin hari galdetu barik geratu: "Interesa eta kezka daukat" dio, "ezker abertzalean aldaketak eman dira azken urteetan egin ezin zitekeena egiteko". Baikor da horretan, baina kezkatuta ere bai"espainiar eta frantziar nazionalismoak tentaldian" ikusten dituelako "eskura dauzkaten tresna guztiak erabiltzeko". "Egoera demokratiko baten aurrean ahul" ikusten ditu estatuak eta euren "jendartearen beldur". Ilusioa bai, baina itxaropenik ez du aitatzen.


Floren Aoiz. OIHANE ISASI

## ai, ene!



### Udarako ezin hobea

Udan zenbat eta gauza gutxiago eraman soinean eta hobeto. Nahikoa da kreditu txartela eta etxeko eta ibilgailuko giltzak eramateko tokia izatea. Oinetako barruan, adibidez. Inongo trabarik ez eta behar den guztia aldean.

http://www.yaves.es

## biharamuna

Juan Kruz Mendizabal

### Bake bila

Orain bertan etorri naiz Oñatitik Arantzazura egin dugun Bakearen Ibilalditik. Barrenetik arrenka bake eske gabiltza. Sinisten dugun Jainkoak bake hori eskatzera garamatza. Badakit gaur egungo eliz haizeak nahastuta darabilzkigula. Badakit haize horiek ez direla nahi adinako espirituaren haize fresko eta gardena. Vatikano IIak eragindako espirituaren iraultza hura gaur egungo elizako batzuen atzera pausoarekin amaitzeko arriskuan dagoela. Badakit gaur egungo garaiak malkartsuak direla. Baina Arantzazutik etorri berria naiz eta hunkitu egiten nau isilean, otoika, taldean nahiz bakarka bake bila dabilen Gipuzkoako eliza honen garrasi isil eta ozena. "Ez dugu inork bake hori galarazterik nahi; ez dugu inork inor hiltzerik nahi, ez torturatzerik; ez dugu nahi gogorkeriaz ezarritako irtenbiderik; ez dugu mendekua eta gorrotoaren katerik nahi. Bide demokratikoak irtenbide bezala nahi ditugu, biziaren alde jokatuz, askatasunean oinarrituz, denentzat izango den bakea bilatuz, indar askatzailea suspertuz, elkarrizketa indartuz, barkamen esperientzia bideratuz". Aste Santuaren atarian hauxe eskatu diogu: geure buruari, besteei eta bihotz berria emango digun Jaun berari. Ez dugu etsiko.



## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +20 | +12 |

Egunaren lehen partean eguraldi lasaia, hodeiak eta urdinguneak tartekatuko dira. Arratsaldean lainotu eta euria egingo du.

www.euskalmet.net

